

EKONOMIAKO GRADUA


2014/2015 ikasturtea

NAFTA itunaren ondorioak Mexikoko ekonomian

Egilea: Aitor Franco

Zuzendaria: Yolanda Jubeto

Data eta sinadura.- Bilbo, 2015 -eko irailaren⁹.....(a)



AURKIBIDEA

LABURPENA.....	iii
SARRERA	v
JUSTIFIKAZIOA	v
METODOLOGIA	vi
IDAZLANAREN EGITURA.....	vii
1. AURREKARIAK: Negoziazio prozesuak eta doikuntza planak	1
2. NAFTA ETA BERE EZAUGARRIAK.....	5
3. ITUNAREN ONDORIOAK MEXIKOKO EKONOMIAN	9
3.1. Adierazle sozio-ekonomikoen bilakaera	10
3.1.1. Makro-agregatuak	10
3.1.2. Gizarte-garapena	13
3.2. Estatuaren deskonposizioa	18
3.2.1. Immigrazioa AEB -etara	20
3.2.2. Armagintza eta narkotrafikoa.....	22
4. 20 URTE ONDOREN ZER	23
4.1. Mexikoko gaur egungo egoera.....	24
4.1.1. Nekazaritza.....	25
4.1.2. Makilak	26
4.1.3. Zerbitzuak.....	29
4.2. NAFTA hobetzeko akordioa	30
5. ONDORIO ETA KONKLUSIOAK.....	32
BIBLIOGRAFIA.....	35

LABURPENA

Gradu Amaierako Lan honek NAFTA -k Mexikoko ekonomian nola eragin duen azaltzea du helburu. Helburu hau lortu ahal izateko, aldez aurretik Mexikoko gizartearen eta ekonomiaren bilakaeraren gaineko ikerketa dokumental bat aurrera eramán dugu, literatura zientifiko orokor eta espezifiko batean oinarriturik. Asmo horrekin buruan, idazlana hainbat ataletan egituratuta dago: hitzarmena sinatu aurretik eman ziren negoziazio prozesuak eta doikuntza planak; hitzarmenaren xedea eta helburua; itunaren ondorioak Mexikoko ekonomian, Estatuaren deskonposizioa eta immigrazioaren garrantzia kontuan harturik; eta, azkenik, Mexikoko gaur egungo egoeraren analisi bat. Bukatzeko, gogoeta orokor batzuk egingo ditugu, hipotesien frogapenekin eta herrialde ezberdinek guztientzat onuragarria den garapen bat lortzeko nola jokatu behar duten proposamen bat azalduz.

RESUMEN

El objetivo de este Trabajo Fin de Grado (TFG) se centra en explicar cómo el Tratado de Libre Comercio de América del Norte (TLCAN) ha afectado a la economía de México. Para poder lograr este objetivo, hemos llevado a cabo una investigación de tipo documental basada en el análisis de la literatura científica general y específica existente sobre la temática a partir los objetivos e hipótesis planteadas anteriormente. El marco teórico está estructurado en varios apartados donde se abordan las siguientes temáticas: los procesos de negociación y los planes de ajuste que se dieron antes de firmar el tratado; la finalidad y objetivo de dicho tratado; las consecuencias del pacto en la economía de México, teniendo en cuenta la descomposición del estado y la importancia de la inmigración; y, por último, un análisis de la situación actual de México. Concluye este trabajo con un conjunto de reflexiones finales, con la comprobación de hipótesis, y con una teoría sobre cómo deben colaborar los diferentes países para un desarrollo beneficioso para todas las partes.

ABSTRACT

The objective of this Final Project focuses on explaining how the North American Free Trade Agreement (NAFTA) has affected the economy of Mexico. To achieve this, we have conducted a documentary research based on analysis of existing general and specific scientific literature on the subject from the objectives and hypotheses a priori. The framework is divided into several sections where the following issues are addressed: the processes of negotiation and adjustment plans that occurred before to signing the agreement; the aim and purpose of the agreement; the consequences of the covenant in the economy of Mexico, considering the decomposition of the status and importance of immigration; and finally, an analysis of the current situation of Mexico. This paper concludes with a set of final thoughts with hypothesis testing, and a theory about how different countries should cooperate in order to have a beneficial development in all parties.

Hitz gakoak: NAFTA, hitzarmena, merkataritza, ekonomia, giza garapena

Palabras clave: TLCAN, tratado, comercio, economía, desarrollo social

Key words: NAFTA, agreement, trade, economy, social development

SARRERA

Lan honetan 1994. urtean Amerikako Estatu Batuak, Kanadak eta Mexikok sinatutako NAFTA (North American Free Trade Agreement -ingelesez) itunak Mexikoko ekonomian izan dituen eraginak aztertzen saiatuko gara. Ikerketa dokumental hau testuinguruaren analisisira eta Mexikoren gaur egungo egoera azaltzen laguntzen diguten eremu eta egoeretara zuzenduta dago. Gai honen aukeraketa gaur egungo mundu globalizatu honetan ematen ari diren merkataritza libreko hitzarmenek duten garrantziaren eta jarri zaien arreta handiaren ondorioa da, eta honen adibide garbia da egun Amerikako Estatu Batuen eta Europar Batasunaren artean adosten ari den merkataritza libreko hitzarmen berria, TTIP -a (Transatlantic Trade and Investment Partnership - ingelesez). Aldiz, hitzarmenak ekarri ditzakeen onura edo kalteen arteko eztabaidak gero eta pisu handiagoa hartzen ari da egungo bizitzan, eta hau da ikerketa hau egitearen arrazoia; ikerketa dokumental baten bitartez NAFTA hitzarmenak Mexikoko ekonomian eragin dituen onura eta kalteen analisi bat egin, ondoren hitzarmenak Mexikori on egin ote dion jakitera eramango gaituen konklusioetara heltzeko.

Ikerketa honek jarraitzen duen helburu nagusia NAFTA hitzarmenean Mexikoren parte-hartzeak izandako eragina zein izan den azaltzea da. Horretarako, beharrezko ikusi dugu ikerketa dokumentala aurrera eramateko hitzarmenaren aurrekariak ezagutzea, Mexikoko ekonomian emandako aldaketen azalpenei dagokionez hurbiltzen duen oinarria honela lantzeko.

Arestian aipatutakoa kontuan hartuz, eta Adam Smith ekonomialariak *“The Wealth of Nations”* liburuan defendatzen zuen ideian oinarrituz, hots, herrialdeen hazkuntzarako giltza merkataritzaren liberalizazioan sostengatzen dela, hipotesi gisa planteatu genezake merkataritza libreko itunek onura ekar dezaketela betiere herrialde berdintsuen artean ematen direnean, ez ordea ezberdinen artean, zenbaitetan gatazkatsuak izan daitezke eta. Arrazoi honegatik, pentsa genezake NAFTA -k Mexikon sorrarazitako eragina ez dela guztiz onuragarria izan, hau da, ekonomikoki indartsua den herrialdeak txikia jan duela, gehienbat Mexikoko ekonomian eragin kaltegarriak sorraraziz.

JUSTIFIKAZIOA

Gai honen aukeraketa gaur egungo egoeraren berri gehiago jakiteak sortutako jakin-minak bultzatutakoaren ondorioa da batez ere. Unibertsitatean jasotako zenbait ikasgaik nazioarteko harremanak mundu globalizatu honetan duten garrantziaren berri eman baldin badigute ere, ikerketa sakonago eta gogobetetsu baten beharra genuela konturatu nintzen. Harremanek sorrarazi dezaketen onura zein arazoen aurrean informazio zehatzago batek prebentzio zein konponbideetara eraman gaitzakeelako.

Merkataritza libreko hitzarmenek herrialde baten nola eragin dezaketen eta zehazki Mexikoko ekonomian NAFTA hitzarmenak nola eragin duen aztertzea da ikerketa honen ardatz zentrala. Urteetan eman diren aldaketa sozial eta ekonomikoen ondorioz,

merkataritza libreko hitzarmenen forma eta edukia aldatzen joan da, baina helburua mantenduz, hots, ondasun eta zerbitzuei ezarritako muga-zergak ezabatzea.

Mundu-ekonomia gaur egun ematen ari diren fenomeno eta arazoak ulertzeko parte erabakigarriagoa bilakatzen ari da. Nazioarteko ezberdintasun handiak, enpresa transnazionalen eragina, finantza-merkatuetako aldakortasuna, mundu agertokian ematen ari den herrialde batzuen paper aldakorra, garapen erronkak edo ingurumen erronkak sorrarazi dezaketen aldaketek gizarte ezberdinen bilakaera ondorioztatu dezakete.

Honek guztiak mundu-ekonomiaren alderdi anitzak ezagutzeko beharra justifikatzen du, eta merkataritza libreko hitzarmenek mundu globalizatu hau posible egiteko giltza garrantzitsu bilakatu dira.

Amerikako Estatuak (Organization of American States -ingelesez) (2003-O) merkataritza libreko akordioa (FTA; Free Trade Agreement - ingelesez) bi herrialde edo gehiagoren arteko nazioarteko hitzarmen bat bezala definitzen du, bere helburu nagusia merkataritza-erlazioa gauzatzeko erregela komunak ezartzea izanik. Asmo horrekin, FTA -k ondasun eta zerbitzuen merkataritza, inbertsioa, jabetza intelektuala, merkataritza defentsarako mekanismoak eta eztabaida momentuetarako konponbide mekanismoak erregulatzen ditu. Hitzarmen berri batzuetan lan arlo eta ingurugiro kontzeptuak ere barneratuz.

Horregatik, NAFTA -ren sinatzaileak diren herrialdeetan bultzatutako merkataritza modelo berriak sorrarazitako ezaugarriak ezagutzea interesgarria gertatzen da. Mexiko ikuspuntu sozial eta ekonomiko batetik azterturik, mundu osora zabaldu nahi den merkataritza libreko itunen onurak Mexikori nola eragin dioten aztertzea da helburua, FTA -k edonon edota edonola, sinestera eraman nahi gaitzaten bezala, onuragarriak diren ala ez jakiteko.

Hauek dira, batez ere, Gradu Amaierako Lan honen burutzean eman diren funtsezko arrazoiak. Honenbestez, azaldutako gaiei erantzun jakin bat ematea da gure asmoa.

METODOLOGIA

Atal honetan, lana burutzen lagundu diguten materialak zehaztuko ditugu, baita lana nola planteatu eta gauzatu dugun zehaztu. Hasteko, esan beharra dago, ikerketa hau ikerketa dokumental batean zentratzen dela, hots, material bibliografikoa erabiliz gauzatu dela.

Proiektu honen muina zehazteko ardatz kronologiko bat erabili dugu, hasiera 80. hamarkadan zehaztuz, globalizazioaren hazkunde nabarmena eta Mexikoren politika ekonomikoaren aldaketa justifikazio bezala hartuz. Bestetik, amaiera, gaur egun arte luzatzea komenigarri ulertzen dugu, NAFTA hitzarmena sinatu (1994) eta bi hamarkada igaro osteko egoera ulertu eta konklusioak ateratzeko.

Material bibliografikoari dagokionez, eta bibliografia zabala erabili dugun arren, zentzuzkoa iruditzen zaigu liburu batzuk aipatzea, ikerketa burutzerakoan erabilienak izan direlako. Hauek dira: *Entendiendo el TLC* (1995); *El TLC, un enfoque trinacional* (1994), *La integración desigual de México al TLC* (2000) eta *How has NAFTA affected the Mexican Economy?* (2004). Web-guneei dagokienez UNCTAD –ekoa, Munduko Bankukoa eta *United Nations, Commodity Trade Statistics Database* eta WITS –eko datu-baseak bereziki lagungarriak aurkitu ditugu.

IDAZLANAREN EGITURA

Behin justifikazioaren eta metodologiaren egokitasuna eta ikerketa honen abagunea argudiatuz, esan dezakegu lana bost atal handitan egituratzen da. Lehen atala, hasteko, NAFTA -ren aurrekariak zehazteko eskainiko dugu, bertan eman ziren negoziazio prozesu eta doikuntza planetan arreta jarritz.

Bigarren atalean, NAFTA eta bere ezaugarriei buruz arituko gara, hitzarmenaren xedea eta helburuak zeintzuk diren azalduko ditugu, eta partaide bakoitzak hartutako jarreraren berri ematen saiatuko gara.

Hirugarren atalean, Itunak Mexikoko ekonomian sorrarazitako ondorioak zeintzuk izan diren azaltzen ahaleginduko gara, estatuaren deskonposizioari arreta berezia jarritz, eta adierazle sozio ekonomikoei erreparatuz. Adierazle hauen analisisa ikuspuntu makroekonomiko batetik zein gisa-garapenaren ikuspuntutik egingo dugu, biek beraien esparruan garrantzi handia baitute. Atal honetan Mexikotik AEB -etara emandako immigrazioak duen garrantzia ere aipatuko dugu.

Laugarren atalean Mexikoren egoerari 'argazki' bat aterako diogu, hitzarmena sinatu zenetik hogeitau urte beranduago egoera nola aldatu den hobeto ulertzeko. Akordioa hobetzeko egindako saiakerak aipatzen saiatuko gara eta Mexikoren egungo egoeraren berri emango dugu baita ere.

Gradu amaierako lanari amaiera emateko, aurreko ataletan egindako analisisietatik ateratako konklusioak aurkeztuko ditugu. Ikasitakoarekin eta aurkitutako mugekin batera, ikerketa honen hasieran planteatutako hipotesiei erantzun bat emango diegu, ondorio batzuk ateraz. Azkenik, nazioarteko merkataritzak herrialde zehatz baten sortutako onura zein kalteak ikuspegi orokor batetik adierazteko gai izanez.

1. AURREKARIAK: Negoziazio prozesuak eta doikuntza planak

Merkataritzaren liberalizazio prozesua eta integrazio ekonomikoa, gaur egun, ekonomia-hazkundearen estrategiaren oinarritzko bi elementu dira, herrialde gehienetan. Bi prozesuak, mundu-ekonomiaren jatorri zein ondorioetan aurkitzen dira. Garrantzitsua da, beraz, Ipar Ameriketara gertatu den integrazioaren dinamika analizatzea eta nazioarteko merkataritzaren liberalizazioak eskualde hauen garapen ekonomiko eta sozialean eragin ahal izan duten prozesu hauek eztabaidatzea.

Globalizazioranzko joera nazioarteko merkataritzaren handiagotzean eta ondare, zerbitzu eta kapitalerako zirkulazio librean nabaritzen da; atzerriko inbertsioek duten garrantziaren handiagotzean; finantza-merkatuen interkonexioan; eta enpresa multinazionalak mundu-ekonomian onartzen duten paper nagusian¹.

Gizartearen bizi-maila hobetzeko eta nazio ezberdinak hazteko aukera bezala agertu da bloke-mailerako edo komunitate ekonomiako integrazioa. Modu honetan agertzen dira herrialdeen arteko akordio, hitzarmen edo merkataritza-itunak, gobernuak beraiei nazioak mundu merkatuan era onuragarrian lehiatu ahal daitezkeen neurri egokiak hartzea eramanen². Honek hainbat bloke multinazionalen sorpena eragin du, zenbait nazio merkataritza-politikak aplikatzea hitzartuz³.

Globalizazioaren une gorenenean, ekonomiaren erritmoak bultzatuta, Mexikok merkataritza-irekitze prozesua inplementatzera behartuta ikusi zuen bere burua, batez ere iparraldeko herriekin (Amerikako Estatu Batuak eta Kanada), ekonomia egonkorreko eta garapen maila altuko estatuak zirelako.

Kontuan izan behar da, mundu osoko herrialdeek eskualdeko merkataritza-blokeko osaketaren norabidea hartu zuten garaiaz hitz egiten dugula. Testuinguru honetan, Bigarren Mundu Gudaz geroztik GATT-en (1947, General Agreement on Tariffs and Trade -ingelesez) inguruan eraikitako alde anitzeko merkataritza libreko eremua bortizki kaltetua ikusiko litzateke merkataritza bloke hauetako barneranzko merkataritzaren alde.

Momentuko merkataritza-bloke handien artean aurkitzen ziren 1989 -ko Estatu Batuen eta Kanadaren arteko Merkataritza Libreko Akordioa eta akordio europarra, 1992. urtean estatu ezberdinek osatzen zuten merkatuan hesi guztiak ezabatuko zituen. Lehengoak, efektu dramatikoak izan zezakeen Mexikoko, Estatu Batuekin zituen merkataritza-loturak oso estuak zirelako, eta Mexikoko konparaziozko abantaila natural guztiak merkatu estatubatuarren potentzialaz baliatzean zentratzen zirelako⁴.

¹ Carrillo, A. (2007)

²Moreira Rodriguez, H. (1995)

³Guémez, G. eta Zabludovsky, J. (1995)

⁴Weintraub, S. (1989)

Mexiko, bere ekonomia nazioarteko bilakatzeko erabakia hartu zuen momentuan, antzeko eskema baten parte hartu edo nazioarteko merkataritzatik kanpo geratzearen arriskua bereganatzearen arteko dilema zailean aurkitzen zen.

Bigarren mundu guda geroztik, Mexikok barneranzko garapen modeloa jarraitu zuen. Berrogeita hamarreko eta hirurogeiko hamarkadetan emandako industrializazioa barne merkatuari begira gauzatu zen, muga-zerga eta beste motatako hesiekin babestua. Gainera, inportazioak ordezkatzeko politikak eragin handia izan zuten barneranzko garapen honetan⁵.

Hirurogeita hamarreko hamarkadan egoera ekonomikoa okertu egin zen. Gastu publikoaren hedapena ez zen sarreren gehikuntza batekin lagundua etorri, eta 1973. urtetik aurrera suertatu zen petrolio prezioaren igoerak kalte handia eragin zion, garai horretan petrolio inportatzaile garrantzitsua zen eta.

Hala ere, atzeraldiak ez zuen asko iraun. Petrolio erreserba handien aurkikuntzak politika ekonomikoa aldaketa handiak eragin zituen. Etorkizunari buruzko ikuspegia oso baikorra zen eta sektore publikoaren zein pribatuaren eskutik inbertsio proiektuak izugarri hedatu ziren.

1981. urtetik aurrera petrolioaren prezioa jaisten hasi zen eta nazioarteko interes tasak maila oso altura iritsi ziren. Mexiko egoera ahulean aurkitzen zen. Politika doikuntzen faltak kapitalen ihesaldia eragin zuen eta zorra epe laburreko kanpo zorpetzearekin finantzatu beharra egon zen. 1982. urtean ez zeuden Mexikori maileguan ematen jarraitzeko hartzekodunik. Gobernuak ordainketen etetea deklaratu behar izan zuen, kanpo zorraren krisiari hasiera emanez.

1982 -ko krisiak defizit fiskal itzela, atzerriko inbertsio txikia, kanpo zor handia eta inflazio altua ekarri zituen. 1982 -ko krisiari eta barne desorekari aurre egiteko eta kaltegarriak ziren kanpo baldintzei egokitzeko, Mexiko barneko gastuaren doikuntza egitera, ekoizpena beste arlotara zuzentzera eta hazkunde ekonomikoa bultzatzeko bide berriak aurkitzera behartuta ikusi zen. Mexikoko gobernuaren politika egonkortasun ekonomikoa berrezartzera zuzendu zen, batez ere, inflazioa murriztera eta dibisen galera gelditzeari.

Laurogeiko hamarkadan, Mexikoko merkataritza-politikan emandako aldaketek berrogeita hamar urteetan zehar barrurantz zuzendutako garapen politikan hauste bat ekarri zuten. Mexikok inportazioen gainean zuen babes gogorra alde batera utzi zuen eta bere ordezkari nazioarteko komunitate ekonomikoa⁶ sartzea erabaki zuen. Mexikoren nazioarteko erlazioen eta merkataritza interdependentziaren ikuspuntua aldatzen hasten da.

1985 -ean, Mexiko merkataritza liberalizatzen hasi zen, ia inportazio-lizentzia guztiak ezabatuz eta inportazioen gaineko muga-zergak txikiagotuz. Jada NAFTA -ren

⁵Lusting, N. eta Székely, M. (1997)

⁶Mexiko GATT-en sartuko da 1986. urtean eta 1994. urtean NAFTA inplementatuko da.

negoziazio prozesua hasi baino lehen emandako merkataritza liberalizazioak eta nazioarteko merkataritza irekitzeak, herrialdearen ekonomia eta merkataritza egitura aldatzen lagundu zuten, nekazaritza barne.

Mexikon, Miguel de la Madrid -en gobernuak, herrialdearen garapen ekonomikoaren estrategia aldatzea proposatu zuen. Ideia hau merkatuaren liberalizazioan oinarrituta zegoen. Honek, espezializazioaren bitartez, eta esportazioak bultzatuz, nazioko industriaren konpetentzia sustatzea zuen helburu bezala, sarrerak lortzeko eta ekonomia-hazkundera berreskuratzeko asmoz.

Aurrekoa lortzeko, egiturazko erreforma lantzen hasia beharrezkoa zen, sektore publikoan zein kanpo sektorean. Kanpo sektoreko erreformak egiturazko hiru ardatz hartzen zituen barne:

- Merkataritza irekitzea
- Merkataritza libreko hitzarmenen sinadura
- Atzerriko inbertsioei mugak txikiagotzea

Aurrekoa ezagututa, esan dezakegu estatuak aliantza-mota hau onartzera motibatzen dituzten arrazoi sendoenetako bat beraien lehiakortasuna eta nazioarteko merkataritza garatzea baimentzen dieten aliantza estrategikoak sortzea dela.

Mexikoren ikuspuntutik, AEBekin eta Kanadarekin izandako merkataritza libreko hitzarmenari buruzko negoziazio prozesuak ondasunen merkataritza librea gailentzen duen eremu librea sortzea eta konpetentzia librea ziurtatzea zuen helburu. Halaber, produktuen kalitatea, ekonomiaren hazkundera jarraitua eta Mexikori munduko beste eskualde batzuekin merkataritza eta ekonomia loturak handitzen laguntzea zuen xede baita ere⁷.

AEB -n eta Kanadaren arteko Merkataritza Libreko Akordioa (FTA) Ipar Amerikako Merkataritza Libreko Hitzarmenaren (NAFTA) aurretik sinatua izan zen, itun berri honen gainean, eztabaidatzeko zein negoziatzeko balio izan zuena.

Estatu Batuen eta Mexikoren arteko negoziazioak 1990. urtetik aurrera eman ziren, baina 1991. urtean Kanada negoziazio prozesura gehitzen da. Hiru herrialdeen gobernuen akordioaren laguntzaz, negoziazio formaleko hiru aldetako Merkataritza Libreko Hitzarmenaren negoziazio prozesuari batera ekingo diote⁸.

Mexikok bere ekonomiaren egiturazko aldaketari hasiera eman zion, hiru alderdi bereizgarri buru izanda: finantza publikoen saneamendua, estatuaren enpresetako pribatizazioa eta merkataritza liberalizazioa.

Merkataritzaren protekzionismoaren arrazionalizazioaren efektuak herrialdea eraldatu zuen, munduko ekonomia itxienetako bat izatetik irekienetako bat izatera igaroz. Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) arabera, 1991 -ko

⁷Moreira Rodriguez, H. (1995)

⁸Acuña, V. eta Alonzo M.(2000)

NAFTA -ren gaineko negoziazioak hasi zirenerako, Mexiko jada ekonomia irekienetako bat zen.

Honek guztiak bultzatzen edo suspertzen du ekonomia mexikarraren liberalizazio prozesu azeleratua. Alde batetik, irekitze-koefizientearen handiagotzean islatzen dena eta bestetik, muga-zergen murriztapenetan edota muga-zergak ez direnen hesien eraispenean.

Beharrezkoa da adieraztea, prozesuaren hasieran, ekonomia mexikarraren eta bere merkataritza-bazkideen (Estatu Batuak eta Kanada) arteko asimetria nabaria zela, garapen teknologikoko mailan, ekoizpen makinaren bolumenean, sarreraren eta kontsumo mailaren banaketan eta konposizio etniko eta kultural ezberdinen bitartez adierazita. Ezberdintasun sendo hauek gorabehera, Mexikok Iparreko bi erraldoiekin elkartzea erabaki zuen.

Honetan arrazoi pragmatikoak daude: Mexikok Estatu Batuekin kontzentratutako merkataritza zuen, Latino Amerikarekin eta Karibearekin garrantzi urriko merkataritza zuen bitartean⁹. Kasu askotan ekonomiak baztertzaileak dira, normalean era bereko produktuekin merkatu berdinatik lehiatzen baitziren, egun bezala: Ameriketako Estatu Batua.

Sintesian, NAFTA -k ekonomia mexikarraren profila aldatu zuen, barneko merkatuaren handitzea bultzatzen zuen politika defendatzetik merkatuaren liberalizazioa defendatzera pasa zen eta.

⁹Mexikoren nazioarteko merkataritza ehunekotan neurtuta AEBekin %70a inguru zen bitartean, Latino Amerika eta Karibearekin zuena %7a baino gutxiago zen.

2. NAFTA ETA BERE EZAUGARRIAK

Hitzarmenaren ondorioak ezagutzeko, NAFTA bera ezagutzea ezinbesteko gertatzen da. Hitzarmena sarrera bat eta 22 kapituluz osatzen da. Hauek 8 zatitan sailkatu daitezke; alderdi orokorrak; ondare merkataritza; merkataritzarako hesi teknikoak; sektore publikoaren erosketak; inbertsioak, zerbitzuak eta gai erlazionatuak; jabetza intelektuala; antolamendu administratibo instituzionalak eta beste antolamendu batzuk¹⁰.

Hitzarmenaren asmoa hiru herrialdeekiko merkataritzaren arteko interakzio handiagoa ematean eta inbertsioa erraztean datza. Honek, halaber, hiru herrietako nazioen arteko elkar trukearen handiagotzea ekarri. Hau harmonian egon zen atzerriko inbertsio handiagoa erakartzeko gobernuaren politikarekin.

1985 -ean Mexiko merkataritza liberalizatzen hasi zen, ia inportazio-lizentzia guztiak ezabatuz eta inportazioei muga-zergak txikiagotuz. Hitzarmena negoziatu baino lehen, industria Mexikarrak jada merkataritza liberalizazioaren efektuak erakutsi zituen, ekoizpenean eta enpleguan pairatutako galeren bitartez. Mexikarrek jatorritik ulertu zuten inbertsioa liberalizatzeko FTA -ak neurri substantiboak ekarriko zituela.

Mexikok Estatu Batuekin merkataritza librearen ekimena har zezanaren arrazoi nagusietako bat atzerriko inbertsioa erakartzeko bere nahia izan zen. Mexikoren eta Ipar Amerikako bere bazkideen arteko merkataritza libreko hitzarmen bat bi arrazoi hauek bultzatua beharrekoa izan zen:

- 1) Laurogeiko hamarkadan Mexikoko sistema ekonomikoan eman zen aldaketa (protektionismotik nazioarteko merkataritzara emandako pausoa) dela medio, erregimen egonkorra inbertsio eta garapena lortzeko baldintza beharrezkoa bilakatu zen.

Gainera, bere merkataritza sektorea liberalizatzeko hasierako ahaleginen ondoren, Mexiko GATT -en sartzea erabaki zuen 1986. urtean. Hala ere, ez zuen epe luzerako inbertsio berririk erakarri, izan ere, GATT -en izateak ezin izan zituen Mexikoko merkatu nagusian, hau da, Estatu Batuetan, inportaziorako muga-zerga handienak ezabatu.

- 2) Bloke ekonomikoek, garai horretan mundu-ekonomiaren ezaugarri nahiko berria, hirugarren herrietako parte-hartzea txikiagotu dezakete eskualdeko merkataritzaren hedapenean. Mexikok akordio bat desiratzen zuen erreperazio ekonomikoa bizkortzeko. Gainera, Estatu Batuekin akordioak izateak atzerriko inbertsio hartzailerik bezala bere potentziala biziagotuko luke.

¹⁰ Testu juridikoa, NAFTA.

Merkataritza libreko akordioaren oinarriko ezaugarrien artean aipatzekoak dira: merkataritza eta produkzio sailetan ematen den asimetrietako mantenua, kapital-fluxuen liberalizazioa, eragile produktiboen koordinaziorako establezimendua galaraztea, eta merkataritza gaiak ez diren arlotan funtsean aurre egitea, hala, estatuko erregulaziorako ahalmena txikiagotzea, eta migrazio-mugimenduetarako neurriak ezartzea¹¹.

Izan ere, akordio komertzial bat bezala aurkeztu arren, arlo meta-komertzialak hitzarmen hauetako muina izatera pasatzen dira, eta Estatuaren ahalmenak higatzen dituzten neurri lotesleak sortzen dituzte. Hauek, eta beste ezaugarri batzuek, herrialde latinoamerikarrak haien artean borrokatzera eramaten dituen merkataritza-kompetentzia mantentzen du, eta kasu batzuetan indartu, hemisferioko menderakuntza handituz.

"Merkataritza libreko" errotulua eraman arren, egia esan, ez dute ondasun eta zerbitzu oro liberalizatzen. Merkataritza asimetrikorako erregelak ezartzen dituzte eta berezko sektore sentiberetan babes-mailak mantentzen dituzte, aurkako alderdiak irekitze maila handienak eman ditzala bilatzen den bitartean.

Segregazio honen adibide da, Washingtonek behin eta berriz sostengatzea manufakturen merkataritza NAFTA itunaren barruan eztabaidatu behar dela, eta aldiz, nekazaritzari zuzendutako diru laguntzak Munduko Merkataritza Antolakundearen (WTO, World Trade Organization -ingelesez) babesean analizatu behar direla argudiatzea.

Herrialdeen asmoa NAFTA nazioarteko merkataritzarako osagarri bat bezala ulertzea da, eta ez zehazki GATT -ekiko hiru herrialdeen eskubideen eta betebeharren ordezkapena. Bloke ekonomia berri bat, alegia.

Merkataritza Libreko Itunak kapitalaren higikortasuna liberalizatzen du, ondare eta zerbitzuen merkataritza modu berri baten definituz, baina oster, langileen higikortasuna galarazten jarraitzen da¹². Autoritate mexikarrek migrazioaren gaineko klausulak sartzea desiratu zuten, baina gaia ez da hitzarmenean barneratu.

Argi geratzen da beraz, NAFTA -rekin ez direla erregulazio guztiak amaitzen. Mexikoko kasuan petrolio gordineko eta gas naturaleko ustiapena eta bertatik deribatutako jarduerak berarentzat gordetzen ditu, petrolioaren fintzea eta kanpo-merkataritza barne. Kontua ez da kaskarra, Mexikoko petrolio gordineko inportazio estatubatuarrak Mexikotik datorren inportazio guztien % 14 -tik hurbil dago eta.

NAFTA merkataritza libreko munduko zona garrantzitsuenetako bat da, 440 milioi kontsumitzaile ditu eta ia 17 trilioi US \$ -ko BPG -a^{13,14}. Hitzarmenak bi efektu ekonomiko nagusi aurreikusten laguntzen digu Mexikon. Haietako bat makroekonomian, hazkunderako potentzial altuagoa, ceteris paribus, defizit komertzialaren handiagotzea. Bestea, jarduera ekonomikoaren berregituratzea.

¹¹ Globerman, S. eta Walker, M. (1994)

¹² Gudyas, E. (2005)

¹³ Datuak naftanow.org orrialdetik eskuratu dira, 2015. urteko apirilean begiratuta.

¹⁴ Sistema amerikarrean neurtuta

NAFTA itunaren ondorioak Mexikoko ekonomian

Egoera honetan, defizit komertzial hazkorra, gehienbat, inportazioen hazkunde handiarengatik eragina izango da. Defizit komertzialaren dimentsioek petrolioko esportazio gehigarriak eskatuko dituen bitartean.

Hitzarmenak Mexikoren ekonomian izango dituen efektu positiboen gainean, makroekonomiaren ikuspuntutik azterturik, esan dezakegu hitzarmenak bere efektu nagusiak bi mekanismoren bitartez produzitzen dituela:

- 1) Inbertsio-tasa handitzea, ekoizleek beraien fabriketan eta ekipamenduetan hobekuntzak egitea desiratuko dutelako.
- 2) Mexikoren esportazioak eta sarrerak handitzea.

Bada, esan dezakegu, FTA -ak Mexikorako onura ekonomiko batzuk ekartzen dituela, adibidez, BPG -aren hazkunde-tasa altuagoa. Munduko eragin ekonomikoari erantzunez eta orain dela gutxi sortutako ustiapenaren ahalmenari erantzuna emanez esportazio mexikarren handitzea ematen da.

Hala ere, ororen gaintetik, inportazioen hazkunde handiagatik defizit komertzial hazkorra eragiten du. Halako fluxuen tamainak, erreserba internazionalen gainean presioa eragitea dakar eta honek, Mexiko bere sektore pribatuaren garapena finantzatzeko aukeratik kanpo uzten du. Beraz, atzerriko kapitalerako sarbidea ematea beharrezko gertatzen da.

Mexikok ez du inoiz baieztatu merkataritza libreko akordioak bere arazo ekonomikoetarako "konponbidea" direla, baina, ekonomia-hazkundeari eta egonkortasunari eragiteko Gobernu Mexikarraren estrategia osatzen duen faktore garrantzitsua denaren tesia sostengatzen du. Honen arrazoia da, esportazioak areagotzen dituela, produkzio faktoreen erabilgarritasuna hobetzen duela, inbertsioa sortarazten duela eta enplegu aukera gehiago zein hobeak sortzen dituela.

Horretan, FTA -aren emaitza bezala aurkitzen dugu ere, akordio honen gaineko herriaren itxaropenek gai ezberdinei ekiditea, besteak beste; ondo ordaindutako enpleguak eta inflazio baxuan islatu daitekeen klima makroekonomiko hobetagoa. Itxaropen hauek betetzearen menpe egongo da inbertsio altua, aldi berean, atzerriko kapitaleko fluxu nabarmenak eskatzen dituen.

Errentaren banaketari dagokionez, pobrezia arintzeagatik gobernuaren programak gorabehera, hobetu baino lehen hondatuko egingo da, izan ere, biziagotutako merkataritzak kaltetutako industrietan doikuntza handiagoa eragingo du. Alabaina, zenbait sektore goranzko joera hartuko duten arren, hots, soldata hobeak eta langile gehiago kontratatuko dituzten arren, beste batzuek sufrimendua pairatuko dute eta langileak botako dituzte.

Merkataritza-kompetentzia handiagoko erregimenean, gaizki banatuta dauden faktore urri batzuen ondorio, Mexikoko sarreraren handiagotzea, iraganean baino gehiago, gaur, errenta banaketa ezberdintasunaren beste arrazoi bat bezala agertzen. Faktore hauek

dira: prestaketa onerako zein teknologia modernorako ahalmenak eta kapitaletarako sarbidea.

Honenbestez, halako hazkundeak, merkataritzaren irabaziak enpresa gutxiagotan eta talde sozial urriagoetan pilatzea ekarriko du, eskulanaren oinarriaren zabaltze bat baimentzeko hedapen ekonomikoaren periodo nahiko luzea pasa arte.

Merkataritzari dagokionez, FTA -ak eskualdeko kanpoko herrien kontra eragindako merkataritzaren desbideratzearen efektuak potentzialki handiak dira. Sistema berri honetan, Estatu Batuetara esportatzaileak diren Latino Amerikako herrialdeak kaltetuak aurkituko dira.

Mexikok hitzarmen honi etekina ateratzen dio, Ipar Amerikako merkatuetara sarbide hobegoa jasotzen duelako. Baina, onura nagusia erregulazio industrial zaharrak eta inbertsiorako murrizketak baliogabetzen hastean aurkitzen da, ekonomia modernizatzen laguntzen dutenak eta bere bazkide latinoamerikarren gainean abantaila bat ematen diotenak.

3. ITUNAREN ONDORIOAK MEXIKOKO EKONOMIAN

NAFTA -k sortutako eztabaida oso bizia izan da negoziazioak hasi ziren unetik. Gure helburua, objektibotasun osoarekin eta argitasunarekin, NAFTA -ren ondorioak ebaluatzeko erabili behar diren irizpideak adierazi ahal izatea da. Horretarako, balantza komertzialaren saldoa eta enplegu sorrera edo desagertzea, beste irizpide eta argumentu batzuen artean, erabilienak izango dira.

Hitzarmenaren azkeneko helburua hiru herrien integrazio ekonomikoa lortzea dela sinestera eraman nahi gaituzte, eraginkortasuna hobetzeko eta produktibitatea estimulatzeko, azkenik, hiru nazioetarako oparotasun handiagoa ekarriko duen medio bakarra hitzarmena dela defendatuz.

Hau guztia ulertzeko, eta integrazioa zein puntutara arte burutu den jakiteko irizpide ezberdinak erabiliko ditugu, horien artean: hiru nazioen arteko merkataritza bolumenean emandako gehikuntza eta hirugarren nazioekiko merkataritzan emandako desbideratze gradua; merkataritza-integratioko eta espezializazioko gradua, produktibitatea, soldatak eta posizio lehiakorren indartzea.

Hiru nazioen integrazio ekonomikoa garrantzizko fenomeno sozial eta ekonomikoa dela ulertzen dugu. Baina garapen-bideko herri baten integrazioa, Mexiko bezala, garatutako bi nazioekin, Estatu Batuak eta Kanada, integratzea interes handiagoko fenomeno gertatzen da.

Estatu Batuetako merkatuak tradizionalki Mexikoko merkataritza esportazio-arrunten % 65 eta % 70 artean xurgatu du, azpi-kontrataziozko industria-ekoizpenaren (makila -ren) % 98 -a eta atzerrira eskainitako zerbitzu turistikoaren % 85 -a inguru. Asmoa, hiru herrien arteko merkataritza libreko zona batera iristea da. Hau, Mexikoko egitura ekonomikoaren gainean eragin adierazgarriak izan ditzakeen garrantzi handiko esperimientua da.

Estatu Batuetako gobernuak Mexikorekin akordioa merkataritza-estrategia zabalagoko irizpide bezala entenditzen zuela ulertu behar da. Merkataritza libre Amerika kontinente guztitik bultzatzen saiatuko litzatekeen elementua izanik, aldeaniztuneko negoziazioei estimulu bat emanez. Oraindik gertatu ez den zerbait.

Talde ekonomiko hauek herri kideetako atzerriko inbertsioak erakartzeko tresna bezala ulertzea bultzatzen gaituzte, baita nazioekiko inbertsio-tasak bultzatzeko ere, elkarrekiko merkataritzako bolumen handiagoa sortzeko asmotan, enplegu-sustatzaile bezala eta sarrerak handiagotzea lagunduko duen tresna gisa.


Mexikoko esportazioen hazkunde sendoak eta NAFTA -ren esparruan emandako atzerriko inbertsio zuzenaren sarrerek, ez dute antzeko garrantzizko emaitza izan aurrerapen ekonomiko eta sozial baten ikuspuntutik, izan ere, NAFTA -ren emaitzak etsigarriak izan dira aldagai makroekonomikoei eta adierazle sozialei dagokienez.

3.1. Adierazle sozio-ekonomikoen bilakaera

3.1.1. Makro-agregatuak

NAFTA indarrean sartu zenetik Estatu Batuen eta Mexikoren arteko bi zentzutako merkataritza handitu denaren zalantzarik ez dago. Hau, Mexikon laurogeigarren hamarkada bukaeran emandako erreperazio ekonomikoaren ondorio da ere, eta eman zen muga-zergen murriztapenaren emaitza. Hala ere, harrigarria dirudi geroztik emandako handiagotze eta hazkunde jarraitua. Zalantzarik gabe Estatu Batuen alde, mexikar inportazio iturrien desbideratzea eman da, beste hornitzaile batzuen kalterako, alegia.

1. Grafikoa: Mexikoren ondasun eta zerbitzuen gaineko esportazio eta inportazioen bilakaera, BPG -aren % -tan neurtuta (1980 - 2014)



Iturria: Norberak gauzaturako grafikoa, Munduko Bankuko datuak erabiliz .

Grafikoan 1980 – 2014 urte bitartean Mexikon emandako esportazio eta inportazioen bilakaera azaltzen da, eta merkataritzaren handiagotzea eman dela argudiatzeko oso baliagarri dugu. Aldiz, ez da bereizten esportazio eta inportazio horien jatorri edo helmuga, ezta hauek zein sektoretan duten garrantzi handiagoa. Hala ere, ez dirudi zaila justifikatzea NAFTA –k bilakaera honetan izandako paper garrantzitsua.

Mexikok bere merkatua inportazioei ireki zien eta bere garapena esportazioen handiagotze batean oinarritu zuen. Ikus daiteke beraz FTA -ra sartzea Mexikoren erabaki unilateralen burutze logikoa izan zela. FTA -ri esker, Mexikok merkatu estatubatuar irekiaren bermea lortu zuen, hura bere garapen-politika berrirako erabakigarria bilakatur.

FTA beharrezko tresna izan zen inbertitzaileei eta bi herrietako merkatariei legezko bermeak emateko. Trukean, Mexikok bere merkatua FTA -ko bere bazkideengana irekita mantenduko zuenaren segurtasuna eskaini behar izan zuen.


Mexikon atzerriko inbertsio zuzena (AIZ) ikaragarri handitu zen FTA indarrean sartu zen momentuan. Ezin dugu jakin inbertsio hau akordiorik gabe ere emango zenik, baina

segurtasun osoz badakigu FTA -k inbertsioa handiagotzera lagundu zuela, berme mexikarrei forma juridikoa emanaz.

Bestetik, NAFTA -k atzerriko inbertsio zuzenaren liberalizazioaren antolamenduak barneratzen ditu eta atzerriko inbertitzaileen babesaren gainean murriztaileagoak dira. Beraz, Mexikori galarazi egiten zaio nazioko ekoizleen eta NAFTA -ren beste herri batzuetako inbertitzaileen arteko loturak sortzera lagundu ditzateken inbertsio neurri gehiengo erabiltzea.

Esan daiteke, Estatu Batuak Mexikora zuzendutako atzerriko inbertsio zuzenaren iturri nagusia izan dela, Mexikoko AIZ -eko sarreraren guztizko barruan bere parte-hartzea 1994. urteko % 47 -tik, 2006. urteko % 64 -ra handitu zela baitakigu. Aldi horretan zehar, batez beste, atzerriko inbertsioen % 54 -a manufaktura-sektorerara joan zen. AIZ -k, ordea, laurogeita hamargarren hamarkada bukaeratik aurrera zerbitzuetan, eta finantza-zerbitzuetan bereziki, garrantzia gehiago hartzen joan da.

2. Grafikoa: Atzerriko Inbertsio Zuzena Mexikon (AIZ) (1970 - 2014)



Iturria: Norberak gauzatutako grafikoa, Munduko Bankuko datuak erabiliz .

Aurkeztutako grafiko honek, hirurogeita hamargarren urtetik aurrera AIZ -k izan duen bilakaera azaltzen laguntzen digu. Ikusi dezakegunez, Mexikon merkatua liberalizatzen hasten denean inbertsio hauek nabaritzen hasten dira, baina ez da NAFTA sinatu arte inbertsio mota hauek benetan garrantzia hartzen duten momentua heltzen.

Eskulanaren kostu baxuek eta bere leku geografikoak bultzatua, Estatu Batuetarako esportazio plataforma bezala, erakarriak izan dira Mexikoko AIZ -ko sarrerak. Mexiko, mundu merkatuak eta eskualdeak hornitzen duten nazioarteko sarearen ekoizpeneko agente nagusien artean kokatzen da, batez ere Estatu Batuetakoa hornitzeko.

Ekoizpena mundu osoan zatikatzearen ondorioz, Mexiko pieza eta konponente edo osagai gehiago inportatzen ari da bere muntaketarako eta Estatu Batuetara berresportatzeko. Beraz, produktu horien balio erantsiko parte nabarmena kapitala

daukaten atzerriko entitateetara doa, ezaguera espezializatua eta kudeaketarako ahalmena dutenetara, alegia.

Eraginkortasuna handitzeko helburuarekin erakarrirako AIZ -ren arazoa hurrengo da: Mexikoko barneko ekonomiarekin lotura sendoak sortzea ez dela lortu, eta horren ondorio da, muntaketa-jarduerak gutxitan gainditu izana. Behatzaile batzuen arabera, honek ekonomia duala sortu du, esportazioetara zuzendutako enpresa gutxik, bereziki herrialdearen iparraldean kokatzen direnak, inbertsio honi errentagarritasun handia ateratzen dioten bitartean, gainerako ekonomiek atzerantz egiten baitute.

Espezializazioaren efektua ere analizatu behar dugu. Integrazio ekonomikoaren oinarri teorikoaren arabera merkataritza eta inbertsiora zuzendutako hesien ezabapenak ondare-ekoizpenaren eta zerbitzuen espezializazioa errazten ditu. Hala, espezializazio hau FTA -ren ondorioz egiten ari den zehazteko modua ekoizpena eta merkataritza garatu direnen aztertzean datza.

Datuei erreparatuz, urte hauetan Estatu Batuen eta Mexikoren arteko merkataritzaren hazkunderik eztanda-garriena industriaren arteko merkataritzan (makila sektoreari esker) eman dela dakigu. Baiezpen honek, espezializazioa, gehien bat, akordioaren ondorio dela defendatzen du.

Intra-enpresa merkataritza, ekoizpeneko inbertsio estatubatuarrari zor zaio, batez ere, Mexikon. Nazio-mugetan zehar espezializazioa eta intra-industria eta intra-enpresa merkataritzak ondorioak ditu. Garrantzitsuenetako bat, bitarteko erabilerako produktu merkataritza sustatzen duela, azken erabilera-produktuetatik aldentuz.

Mexikok Estatu Batuetarako beste abantaila bat du: hurbil dagoela eta garraio-kostuak baxuak direla. Aukera horiek, garapen jasagarriko estrategia mexikarraren onerako, egoki aprobeztatu ahal izateko, bi baldintza bete beharko dituzte:

- a) Beharrezko merkatu interakzioak ezartzea, bai prozesu teknologikorako eta informaziorako, eta baita gaitze-tresnetarako eta heziketarako ere. Hau guztia, behargabeko bikoizketak saihesten diren bitartean, eta erakundeak eta nazio-ahalmenak sendotzea baimentzen den bitartean emanik; eta
- b) Enpresa-antolaketa mexikarra beharrezko heldutasunera heldu beharko da, bere mugak, parte-hartze aktibo bat jarraituz, lokaletik harantz, kanpokorantz, handitzeko.

Hala ere, garrantzi handiko produkzio ezak agerian uzten du merkataritza libreko hitzarmenen beste muga bat. Erlazio lineak emango direla aurre-suposatzen du, esportazioen gehikuntza batek ekonomiaren hazkundera eragingo lukeela iragarritz, eta honek aldi berean garapena sortuko lukeela, pobrezia difusio-mekanismoen bitartez txikiagotuz.

Idea hau, esportazioen handiagotze hori sortzeko merkataritza libreko hitzarmenak ezinbestekoak direla baieztatzeko azaltzen da. Esportazioen handiagotzeak, maila garrantzitsuetan bada ere, BPG -aren handiagotze mailan efektu askoz apalagoak

eragiten dituenaren ebidentzia ugari daude, eta honek aldi berean ez du pobrezia txikiagotzen edo ekitatea hobetzen, birbanaketarako mekanismo aktiboetatik kanpo baitaude.

Makilak, estatubatuar produktuak¹⁵ lantzeko alde mexikarreko mugan loratu diren fabrikak, merkataritza-jarraibide honen adibide dira. Programa hau Mexikoko autoritateek hirurogeiko hamarkadaren amaieran jarri zuten martxan, mexikarrek bere herritarrak aberrira itzultzea espero zuten gertakizunaren erantzun bat bezala, langileei enplegua emateko.

Makilak koprodukzio sistema bat dira, Estatu Batuetan sortutako bitarteko produktua hartu eta hura gero Mexikon osatzea helburu duena. Oso kritikatuak izan dira ere, beste gauza batzuen artean, ia balio erantsirik ematen ez duten material mexikar gutxi darabiltzate eta.

Makila sektoreak, jatorriko naziotik ia osagairik erabiltzen ez duenak, FTA -ko lehen urteetan hazkunde izugarria erregistratu zuten, Mexikoko lan industrialeko bosgarren lekuan kokatuz¹⁶.

Bestalde, establezimendu industrial ertain eta txikien gehiengoa, bere atzerapen teknologikoa eta kudeaketa ahalmen mugatuaren ondorioz, krisi larrian eztabaidatzen dira barneko merkatuaren jaitsieragatik. Agerian geratzen da beraz, trabaz traba, Mexikok, bere lurralde barruan, bere ahaleginak garapen iraunkor eta zuzenera bideratu behar dituela.

Bestalde, uneko estrategia ekonomikoa: esportatzailea, irekitasunaren aldekoa, pribatizatzailea eta deserregulatzailea, aurreko modeloa bezala, barneko aurrezkiaren eskasia pairatzen eta kanpokoan sendoki sostengatzen jarraitzen du.

Pribatizatutako Mexikon agente ekonomikoek aurrezteko erakusten duten ezgaitasuna teoria neoliberalerako erronka bezala agertzen da. Harritzekoa da, funtzionamendu kapitalista duen ekonomia baten hazkundearen estrategia eta antolamendua kanpoko aurrezkietan oinarritzea, hauen parte-hartzea funtsezkoa izanik.

3.1.2. Gizarte-garapena

Merkataritza libreko hitzarmenak politika sozial bat jarraitzen duten eskualdeko strategiengandik ezberdintzen dira, adibidez, pobrezia erasotzeko edo alfabetatzea hobetzeko. Osagai sozialak alde batera uzteaz aparte batzuetan erasotuak izaten dira, merkataritza-hesi bihurtzearen posibilitatea dagoela argudiatu baitezakete. Kasu batzuetan FTA -ak neurri sozialak aplikatzea galarazten dituzten klausulak izan ditzakete; adibidez, lan baldintzetan hobekuntzak eskatzea ez da posible izango merkataritza librearen edo kapital-fluxu librearen aurkakoak bezala ulertzen badira.

NAFTA -n ingurune eta laboral gaietarako komisioak sortu ziren (NACEL -a eta NAALC -a hurrenez hurren), baina bere zeregin ahulak mekanismo horien mugak

¹⁵ Balio erantsi handirik gabeko osagaiak, gero alde estatubatuarreko ekoizpenerako erabiltzen direnak.


¹⁶ Weintraub, S. (1997)

agerian uzten ditu. Lankidetzak laboraleko komisiok, adibidez, ez du lortu lan-egoera txarren arazoak hobetzea, segurtasun eza konpontzea eta bereziki Estatu Batuetarantz esportatzen dituzten "makila" mexikarrendako osasun zerbitzu txarrak hobetzea¹⁷.

Bi komisioren oinarriko arazoa da NAFTA barruan laboral edo ingurune arloan arau-haustea zehaztu diren tokietan, kasu gutxi haietan, merkataritzaren gaineko erregulaziorako mekanismo loteslerik ez dagoela.

Mexikon, ezberdintasuna modu anitzetan adierazten den gertaera da; adibidez, heziketarako eta osasun-zerbitzuarentako sarbide eraginkor eta iraunkor eza; landa lekuetako pobrezia; komunitate indigenetatik baztertzea; zerbitzurik gabeko hiri asentamendu prekarioak; eta kanpoko lan indarraren emigrazio bizia.

3. Grafikoa: Mexikoren BPG -aren eta BPG per capitaren eboluzioa US \$ -etan neurtua (1980 - 2014)



Iturria: Norberak gauzatuak grafikoak, Munduko Bankuko datuak erabiliz .

Hirugarren grafiko honetan, Mexikoren BPG -aren eta BPG per capitaren eboluzioa ikusi ditzakegu, 1980. urtetik aurrera adierazita. Datu hauek makro-agregatu moduan kontsideratu arren, eta nahiz eta aurrekoa kontuan hartu, Mexikon azken urteetan hobekuntza bat eman dela pentsa genezake. Hala ere, BPG per capita, biztanleriaren sarreraren bilakaeran eman den eboluzioaren ideia bat egiteko balio badigu ere, horretan geratzen da, indikatzaile honek ematen diren ezberdintasunak kanpoan uzten baititu.

Hitzarmeneko lehen hamarkadan zehar (1994-2004), Mexikoren BPG erreala per capita bataz-beste % 0,8 - ko erritmoan baino ez zen hazi. Tasa hori hiru aldiz handiagoa izan zen periodo berdinean Kanadan eta AEB -tan. Aldiz, Mexikoko hazkunde-tasa oso baxu hori merkataritza libreko hitzarmenaren ondorio izan ez dela argudiatzen dute zenbait idazlek, segur aski, heziketa-maila baxua, negozioetarako ingurune egoki baten falta eta garraio-azpiegituraren faltaren ondorio izan zela baizik¹⁸.

NAFTA -k garapenerako politikarik ez duenez, Europar Batasuneko kohesio politika esaterako, eskualde mexikarrek merkataritza-integratioari etekina ateratzeko denbora askoz gehiago behar dute.

¹⁷Bakon, D.(2004)

¹⁸ Munduko Bankua (2003)

NAFTA itunaren ondorioak Mexikoko ekonomian

Hala ere, 2004 eta 2014 urte bitartean, ekonomia mexikarrak portaera hobea erakutsi zuen. Bere BPG erreala per capita urteko % 1,5 eko erritmoan hazi zen nahiz eta krisi garaia izan, Kanadako eta AEBtako hazkunde-tasak bikoiztuz.

Mexikoko emaitza ekonomikoen hobekuntzak gorabehera, NAFTA -ren barnean ez da eskualdeko ezberdintasunen murriztapenik ikusi. Honen arrazoia Mexikoko gutxiago garatuta dauden eskualdeen zati handi bat, garatuago dauden eskualdeekin bat egiteko izan duten gaitasun faltan oinarritzen da¹⁹.

Eskualdeen arteko ezberdintasunak, Mexikoko garapenean iraun duten beste lasta bat izan da. Honen adibide da, laurogeita hamargarren hamarkadaren amaieran Mexiko hiriko zona metropolitarrak BPG -aren % 45 -a erakartzen jarraitu izana (manufaktura industriaren % 35- a)²⁰.

Egiturazko erreformen prozesuak eskualdeko desorekak areagotu ditu. Mexikoko iparrak eta zentroko parteak merkatuen globalizazioaren eta modernizazio teknologikoaren dinamikan aktiboki parte hartu dute; ez ordea hegoak eta hegoekialdeak, petrokimikaren gune batzuk eta petrolio-sektorearen beste jardura batzuk ezean. Zona periferiko hauen geldialdi ekonomikoak, aurre egiteko zailak diren egiturazko faktoreak aplikatu ez direla agerian uzten du.

NAFTA indarrean sartu zenetik, Mexikoko BPG -a era ezegonkorrean hazi da, Estatu Batuetako ziklo ekonomikoari hurbiletik jarraituz. Hala ere, epe ertainerako perspektibarekin, NAFTA indarrean sartzeak ez du hobetzerik eragin Mexikoko hazkunde joeran, ez du lagundu Mexikoko BPG per capitaren diferentzia txikiagotzen ezta gainontzeko herrialdeen arteko ezberdintasuna txikiagotzen.


Sarreraren ezberdintasunei dagokienez, “laurogeiko hamarkada galduan” Estatu Batuekin alderatuz ikaragarri handitu ziren horiek, 1994. urteaz geroztik hazten jarraitu dira. NAFTA -k eskulanaren produktibitatea handitzeari lagundu dion arren, Estatu Batuei dagokienez aspektu honetan dagoeneko bazegoen ezberdintasuna nabarmendu egin da.

Mexikok pobrezia murriztapenean aurrera egin du, baina sarreraren ezberdintasunak handia izaten jarraitzen du. Bestalde, bereziki Mexikoko iparraldeko zonetan, esportazioen hedapenaren eta AIZ -ren handiagotzearen bitartez, NAFTA -k hazkundeari lagundu dionez, eskualdeko ezberdintasunak handitu egin dira.

¹⁹European Commission (2014)

²⁰ Urquidi, V. L. (1997)

4. Grafikoa: Gini indizea Mexikon (1989 - 2012)




Iturria: Norberak gauzaturako grafikoa, Munduko Bankuko datuak erabiliz.

Gini indizea adierazten duen grafikoak, argitasun osoz erakusten digu, Mexikoko herrialdearen arteko ezberdintasunak txikiagotu ez direla, eta ezberdintasun horiek maila oso altuan izaten jarraitzen dutela. Iparra eta hegoaren arteko ezberdintasuna ez da Mexiko eta Estatu Batuen artean soilik ematen, Mexikon bertan ere alde handia igartzen da hauen artean, bai soldatak jasotzeko orduan, zein zerbitzu ezberdinak jasotzerako orduan.

NAFTA -ren barruan, herrialde ezberdinen artean asimetria itzelak egonda, integrazio-prozesuaren doikuntza kostuak ordaintzen laguntzeko finantzaketa konpentsatzeko mekanismoko mota bat hitzarmenean sartu beharreko zerbait zela esatea ulertzekoa da, hala, leku urrietan azpiegiturak garatzeko finantzaketa. Konpentsazio-funtsak bereziki garrantzitsuak izango lirake Mexikorako, NAFTA barruan herrialde txiroena baita.

1. MAPA: HDI maila Mexikoko herri ezberdinetzat (2010 -eko datuak)



Iturria: PNUD –eko web-gunetik ateratako argazkia. Mapa hau, “Índice de Desarrollo Humano Municipal en México” informean eskuragarri dago.

1. Taula: HDI maila Mexikoko Estatu ezberdinentzat (2010)

Estatua	HDI maila	Estatua	HDI maila	Estatua	HDI maila	Estatua	HDI maila	
Aguascalientes	0,753	Distrito Federal	0,830	Morelos	0,743	Sinaloa	0,752	
Baja California	0,759	Durango	0,721	Nayarit	0,743	Sonora	0,766	
Baja California Sur	0,786	Guanajuato	0,711	Nuevo León	0,792	Tabasco	0,731	
Campeche	0,733	Guerrero	0,678	Oaxaca	0,673	Tamaulipas	0,750	
Coahuila	0,764	Hidalgo	0,715	Puebla	0,708	Tlaxcala	0,715	
Colima	0,759	Jalisco	0,744	Querétaro	0,748	Veracruz	0,706	
Chiapas	0,654	Mexiko Esatuta	0,740	Quintana Roo	0,746	Yucatán	0,728	
Chihuahua	0,710	Michoacán	0,700	San Luis Potosí	0,715	Zacatecas	0,708	
							Estatukoa	0,738

Iturria: Norberak gauzatutako taula, PNUD –eko datuak erabiliz

Konpentsazio-mekanismo horien eskasiak sortzen duen ondorioa mapa honetan azaltzen zaigu, Mexikoko herri ezberdinetan gizarte garapenaren indizea azaltzeko lagungarri gertatzen zaiguna. Indize honek bizitza luzea eta osasuntsua, hezkuntza maila egokia, eta bizitza maila egokia edukitzeko aukera neurtzen du, eta horregatik da hain garrantzitsua. Kasu honetan ere, herrialdean izugarritzko aldeak daudela antzeman daiteke, eta beraz, hitzarmena garapena, bere zentzu zabalean ulertuta, lortzeko balio izan ez duela esan dezakegu.

NAFTA indarrean sartu zenez geroztik, enpleguaren gaineko efekturik ikusgarriena nekazaritzan gertatu da, bi milioi lanpostu galdu ziren, inportazioen handiagotzeagatik gehienbat. Postu hauek batez ere hirugarren sektoreagatik xurgatuak izan zirela dirudi. Bestalde, nahikoa da Mexikon nazio-industriaren %90 -a mikro eta enpresa ertainez osatuta zegoela seinalatzea, merkataritza irekitzeko emandako pausoak sektore honetan hondamendia eragin zutela ulertzeko.

Beharbada NAFTA -ri dagokionez desengainurik handiena Estatu Batuetarantzko Mexikoko emigratioari amaiera ematea lortu ez izana izan da, bereziki emigratio *legala* ez dena, kostu sozial altuak dituen. Bizi-mailaren eta mexikarren enplegu hautaketen aukerak ez dira nabarmen hobetu, eta Estatu Batuei dagokienez soldata ezberdintasunak ez dira gutxitu. Beraz, emigratzen jarraitzeko sustagarri asko egoten jarraitzen du.

NAFTA –k, hala ere, zenbait *pertsona-kategorien* denborazko mugimendua errazten du, bereziki negozio-bidaietako pertsonak; profesio jakin batzuen kalifikatutako eskulana; enpresa berera transaldatutako enpleguak; eta merkataritza eta inbertitzaileak. Mexikoko gutxi kalifikatutako langileak, NAFTA -ren beste herrialde batera emigratzeko nahia badute, mugimenduen liberalizazio honetatik kanpo aurkitzen dira.

Bestalde, diru bidalketak, edo erremesak, Mexikoko emigrazioaren alde positiboa bezala uler daitezke, pobrezia gutxitzeari eta neurri txiki batean enpresako finantzaketari lagun diezaieketenez gero. Baina bidalketa hauen areagotzeak hurrengo pentsatzera eramaten gaitu: NAFTA -k ez du lagundu emigrazioa eragin zuten ekonomia mexikarraren egiturazko arazoak ebaztera.


Gizarte-garapena azaltzea helburu duen atal honetan, errenta ezberdintasunak, eta Mexikoko estatuaren arteko desorekak azaltzeko gai izan gara. Hala ere, hezkuntza eta osasunean bereziki eman diren bilakaera aztertzea garrantzitsua iruditzen zaigu. Atal honek beraz, lan oso bat eskatzen duela argi geratzen da. Errenta banaketaren eta immigrazioaren azterketan mugatzearen arrazoia, NAFTA eta adierazle hauek duten lotura estuaren ondorio izan da, gizarte-garapenaren analisi zehatzago bat hurrengo lanetarako utziz.

3.2. Estatuaren deskonposizioa

Mexikon, pribatizazioaren funtsezko helburuetako bat bezala planteatzen da defizit publikoa txikiagotzea eta eraginkortasun zein produktibitate handiagoa lortzea. Azpimarratu egiten da estatu indartsuago eta eraginkorrago baten beharra eta ez estatu handiago baten beharra.

Hala ere, egiazta daiteke prozesu pribatizatzailea kanpo-zorren arazoarekin erlazionatuta egon dela, hartzekodunekiko negoziazioekin eta Nazioarteko Diru Funtzarekin sinatutako asmo-gutunekin²¹. Gezurrezkoa gertatu zen, pribatizazioaren bitartez finantza publikoak indartzeko eta ekonomia estimulatzeneko politika berriak planteatzeko helburua.

5. Grafikoa: Mexikoko gobernu zentralaren zorra BPG -aren % -tan neurtuta (1990 - 2000)



Iturria: Norberak gauzaturako grafikoa, Munduko Bankuko datuak erabiliz .

²¹ Cardero, M., Rueda, I. eta Concheiro, E. (1996)

Aurkeztutako grafiko honetan, Mexikoko gobernuak 1990. urtetik 2000. urtera azaldu duen zor publikoaren bilakaera ikusgai daukagu. Aztertu dezakegun moduan, NAFTA –ren negoziazio prozesua hasi eta berehala, zor honen kopurua maila izugarrian jaisten hasten da, nazioko pribatizazioak bultzatuta.

Bestalde, kanpoko zein barneko faktoreen eraginak oinarrien aldaketa erradikala ekarri zuen, bai operazio moduetan, zein laurogeiko hamarkadatik aurrerako Mexikoko garapen estrategikoan. Ekonomiaren ardatza barneko merkatutik kanpokora mugitu zen, eta ekoizte-prozesuetan estatuaren presentzia zabal eta sakona bereizgarri izandako ekonomiatik, iniziatiba pribatua, bai nazionala eta baita atzerritarra ere, aktore zentraleko hazkundeko eta garapeneko paper zentrala izatera pasatu zen.

Erabaki-zentroak, jada kanpokoak dira nolabait eta era batean behintzat sektore pribatu nazionalarenak. Arautzen zuten eta jarduera ekonomikoa subsidiatzen zuten politikak atzean utzi ziren, eta bidea zabaldu zitzaion aktore berriko parte-hartzeari, non kompetentzia librea erregulatzailerik ez dagoela ulerturik.

NAFTA -ren negoziazioak munduko irekienetako eta babes maila baxueneko bi herrialdeekin negoziatzen ari ziren premisarekin egin ziren. Hasi batean merkatuaren operazioetan Estatuaren interferentziarik ez dagoela, inongo sektore produktiboei edo baliabide gutxiagoko populazioarentzat laguntzarik ematen ez direla, eta produktore-talde batzuk babesten dituzten neurri arautzailerik ez dagoela ulerturik. Printzipio hau faltsua da²².

Asmoa herrialde hauek (Kanada eta AEB) oraindik mantentzen dituzten askotariko politika eta mekanismoetarako eremua nabarmentzea da, Mexikoko politika hauen etengabeko eraispenaren kontra sustatzeko. Pribatizatzea, desarautzea eta kanpo-merkataritza irekitzea da atzeratutako herrietarako kontsigna, industrializatutakoek babes era berriak hartzen dituzten bitartean.

Pribatizazioek bestetik, ez dute enplegua areagotu, eta ez dute lagundu ondasunaren banaketa eta sarrera ekitatiboago bat lortzen, pribatizazioaren helburu bezala ere seinalatzen zirenak. Aitzitik, langabeziako gehikuntza nabarmena ekarri dute, salmentak baino lehen emandako pertsonal-murrizketengatik, eta honen ondoren ere kasu askotan eman ziren kaleratzeengatik. Bestetik, kapitalaren eta sarreraren kontzentrazio handiagoa eta banaketa ez ekitatiboaren zentralizazioa ere eragin dituzte pribatizazioek.

Ondoriozta dezakegu bada, nazioaren aktiboen salmentan itzuli daitekeen pribatizazioak gutxi batzuei on egin diela soilik, talde finantzario boteretsuenei eta kanpoko hartzekodunei, alegia.

²²Cardero, M., Rueda, I. eta Concheiro, E. (1996)

3.2.1. Immigrazioa AEB -etara

Mexikoren, Estatu Batuen eta Kanadaren arteko FTA -aren negoziazio-prozesutik eta sinaduratik kanpo geratu zen gaia da herri hauen arteko nazioarteko lan-merkatu existentziaz diharduena, eta bereziki, bere garrantzi kuantitatibo eta kualitatiboagatik Mexikoren eta Estatu Batuen arteko migrazio mugimenduari buruz diharduena.


Alde-bitako erlazioei dagokienez, fenomeno hau gatazkatsuen eta latzenetako bat izan da, eta negoziazio eta akordio esplizituen arrazoi izan ez zen arren, hitzarmenaren sinadura inguratzen zuen eztabaidaren oinarrian egon zen.

Lan-ingar mexikarraren parte batek modu iraunkor batean emigratzen duela ulertzen da, legez edo modu *ilegalean*, eta aldi baterako era errepikarian edo bestela, eskualde batzuetan eta sektore ekonomiko batzuetan gailentzen den lan ez kalifikatutako eskari handiagatik. Gainera, Estatu Batuetan lan espezifiko honek, langile mexikarrak herri honetako langileak ordezkatzeko eraginkortasunez eta soldata edo sarrera txikiagoen truke.

Lan-merkatu iparramerikarraren erakargarritasuna, langabeziari eta Mexikoko arbuiatze laboraleko faktoreei gehituta, migrazio-korrontea halabarrezko egiten dute, iparra mugaren beste aldera. Halaber, Mexikon garrantzitsuak dira, bere familientzako mexikarrak egiten dituzten diru bidalketak.

Askok argudiatzen dute akordioa Estatu Batuetara zuzendutako Mexikoko migrazioa estimulatu duela. Beraien argumentu nagusia da nekazaritzan emandako aldaketak mexikarren migrazioa landa guneetatik barruko hirietara bultzatzen duela, eta frontieratik Estatu Batuetara. Landa guneetako populazioaren gehiengoa egoera ekonomiko kaskarrean aurkitzen da, eta beraien eskola eta osasun arretarako instalazioak desagokiak dira. Hiri handietatik bitarteko tamainako hirietara, populazioaren kontzentrazioa gertatu da baita ere, azpiegitura-arazoak eta beharrezko zerbitzuen falta sortuz.

6. Grafikoa: Migrazio mugimenduak: Atzerrira eta landa guneetatik hirietara (1962 - 2012)



Iturria: Norberak gauzaturako grafikoa, Munduko Bankuko datuak erabiliz .

Hurrengo grafiko honek Mexikon eman diren migrazio mugimenduak laburbiltzen ditu. Alde batetik, migrazioaren saldoa²³ aurkitzen dugu, joan direnen eta etorri direnen arteko diferentzia hain zuzen. Bestetik, herrialdean bertan eman diren migrazio mugimendu handienak laburtu ditzakeen arrazoia, hots, landa guneeetatik hirietara emandako migrazioa laburtzen duen grafikoa aurkitzen dugu.

Grafikoa aztertutik, argi geratzen da beraz, migrazioak Mexikoko herrialdean duen garrantzia. Azkeneko berrogeita hamar urteetan migrazioaren saldoa positiboa²⁴ izan da, nahiz eta laurogeiko hamarkadan eman zen krisiaren ondorioz atzerakada bat eman. Argi antzematen da gainera, NAFTA indarrean jarri zen unetik eman den emigrazio hazkundera. Honek, agerian ustez du garapena bultzatzeko kohesio politika falta, eta lan merkatuan ematen den ezberdintasun handia.

Grafikoaren bigarren zatia aztertutik, landa guneeetako populazioa geroz eta pisu txikiagoa duela esan dezakegu, landa guneeetatik hirietara emandako barne migrazioaren ondorioz. Migrazio honek, hala ere, badu bere arrazoia. Muga-zergen ezabapenak agerian utzi zituen populazio hauen lehiakortasun ahula, eta inportatutako produktu berriei aurre egiteko ezintasuna. Faktore hauek ezinbestean emigratzeko beharra eragin zuten.

Emigrazioaren gaineko FTA -ren efektua aztertzea, akordioan agertzen diren neurri politikoek mexikarren sarrerak zein proportzioan handitzera lagundu dezaketean ikustean datza. Izan ere, sarrera baxu hauen ondorioa da, gauzatzen den emigrazio masiboa. Mexikoren eta Estatu Batuen arteko migrazio-fluxuaren ezaugarriak bere bidezko dimentsioan kokatzeko nahiarekin, oso garrantzitsua gertatzen da bistatik ez galtzea nazioarteko lan-merkatuan eman den integrazio handiagoa. Hortaz, mundu eskalako migrazio laborala, beste batzuen artean, nazioarteko lan merkatuan sortzen diren ondorioen pertzepziotik analizatu behar da.

Migrazio-fluxu hauek jatorrizko herrietako eta pertsona hartzaileak diren herrietako gizaratean eragin garrantzitsuak eragiten ditu. Langile migrazioen fluxuen intentsitatea zuzenki lotuta egon da lan-indar honetako herri eskatzaileen kapital prozesuaren metaketarekin. Lortutako etekinak langileen esplotazioarengandik eraginak izan direla nabari eta zabal ezagunak dira. Bada orduan, immigrazioaren eta langileen eskariaren arteko zuzeneko erlazioa.

Estatu Batuetarako Mexikoko migrazio laborean, funtsean bi etapa bereiz daitezke nazioarteko lan indarraren merkatuaren ezaugarriei dagokienez. Lehenengoan²⁵, landa guneeetatik etorritako langile gazteak ziren gehienbat. Estatubatuarren nekazaritza sektorearen eskaria asetzen zutenak, aldi baterako edo urtaro baterako. Bigarren etapan,

²³ Migrazioaren saldoa lortzeko, orokorrean erabiltzen den formularen alderantzizkoa erabili da, grafikoa hobeto ulertzeko nahiarekin. Erabilitako formula: Migrazio saldoa = Mexikotik emigratutako biztanleria (joandakoak) - Mexikora immigratutako biztanleria (etorritakoak).

²⁴ Grafikoan erabilitako formula jarraituz

²⁵ Hasiera fenomeno honen sortzearekin ematen da

aipaturiko merkatu hura dibertsifikatu egiten da ekonomia estatubatuarraren eskarrietara moldatzeko, eta zerbitzuen area nagusitu egiten da gehienbat.

3.2.2. Armagintza eta narkotrafikoa

Mexiko eta Estatu Batuen arteko erlazioan arma-trafikoa egiturazko arazoa izaten jarraitzen du, eta narkotrafikoaren, indarkeriaren eta Mexikoko segurtasun-gabeziaren faktore erabakigarria izaten jarraitzen du.

Mexikon, hamabost milioi arma zirkulatzen dutela estimatzen da, eta horien % 85 - a ilegala izan daitekeela. Diru-garbiketa, narkotrafikoa eta krimen organizatua Mexikon azken aldiaren eman diren arazoentako batzuk dira, herrialde hau narkotrafikoaren loturetarako lurralde estrategiko bilakatuz²⁶.

Mexikok eta Estatu Batuak hiru mila kilometro inguruko muga komun bat partekatzen dute, orografia aparta eta biztanleriaren dentsitate baxu batek karakterizatzen dituena. Egoera honek, kontrabando mota guztiak posible egiten ditu. Mexikok iparreko bere auzotarrarekin partekatzen duen mugan, Mexikora iristen diren arma ilegalen trafikoaren arazoa ematen da. Mexikon konfiskatutako armen % 70 -a inguru Estatu Batuetako jatorria du.

Mexiko eta Estatu Batuak arma-trafikoari aurre egiteko mekanismorik gabe aurkitzen dira. Alde-bitako kolaborazioak bortizkeria gune batetik pasatzea baimenduko luke, bakea eta herritarren segurtasuna berreskuratuz. Hori dela eta, Mexiko marko legal, instituzional, finantzario eta teknologiko baten eragiteko gai den kudeaketarako programa estrategiko eta integral bat indartzeko beharrea aurkitzen da.

Arrazoi horiengatik prebentzio planetan eta legedi eraginkorragoetan aurrera egiteko garrantzia planteatzen da, prebentzio-programetarako indartzea eta bakearen garrantzia estrategia hauen funtsezko elementuak izanik.

Laburbilduz, arma-trafikoa eta narko-estatua bidegurutze anitzak dituen arazoa bilakatzen da, arazo larri honi eraginkortasunez erasotzeko alde-bitako mekanismorik aurkitzen ez delarik. Gainera, inpaktu sozialak areagotu egin dira eta honek ezinbestean, indarkeriaren kultura batetik segurtasunaren kulturarantz migrazioa suspertu egin du.

²⁶ Estatu Batuetako senatariak aurkeztutako txostena

4. 20 URTE ONDOREN ZER

Ipar Amerikako Kanadaren, Estatu Batuen eta Mexikoren arteko Merkataritza Libreko Hitzarmena (NAFTA) 1994 -ko urtarrilean indarrean sartu zenean, garapen-bideko herrialdeek eta garatutako herriek parte hartzen zuten lehen eskualde-anitzeko akordioa izan zen.

Garrantzitsua da bereziki, garapen-bideko herrialdeen ikuspuntutik NAFTA -ren efektuen analisi bat egitea. Bereziki, maiz, NAFTA Ipar eta Hegoaren arteko beste merkataritza akordio batzuk aurrera eramateko modelo bezala kontsideratua izan delako.

Hitzarmenak eskualdeko merkataritza eta Mexikoko atzerriko inbertsio zuzeneko sarrerak (AIZ) handitzeko balio izan duen arren, ez da nabarmentzen ekoizpenaren hazkundera azeleratzen lagundu duenik. Honenbestez, ez dio mesede egin, enpleguaren hazkunderari edo mexikarren bizi-mailaren hobetzeari, itunaren defendatzaile askoren itxaropenen aurka joanik.

Hala ere, zenbaitek zera baieztatzen dute: ez dela NAFTA emaitza positiborik ekarri ez duena. Aldiz, Mexikori hitzarmenak eman diezaiokeen etekin edo onura guztiak lortzea beste faktore batzuek galarazi diotela defendatzen dute. Hauen artean: kredituaren kontrakzioa edo egiturazko erreformen urritasuna.

Oro har, onartzen da gorpuzkera honen ebaluazio enpirikoa egitea zaila gerta daitekeela, NAFTA -ren efektuak beste gertaeretatik ezin direlako bereizi. Beste batzuen artean: Mexikok unilateralki laurogeiko hamarkadan burututako liberalizazio prozesua; pesoaren debaluazioa; 1994 – 1995 -eko "tekila" krisi finantzarioa, eta Estatu Batuetako ziklo ekonomikoa.

NAFTA -n, liberalizazioa, zerbitzuak barne, gai nagusi bezala ulertzen da, hazkundera eta garapen ekonomikoa bultzatzeko edo sarreren bat-egitera heltzeko tresna bat bezala baino gehiago. Bere jatorrian, hitzarmena, merkataritzarako sarbidearen muga-zergen edo beste hesien ezabapenari buruzko kontuetatik harantz zihuan. Zerbitzuen merkataritzaren liberalizazioa bere gain hartzen du, finantza-zerbitzuak barne.

Beste eskualde-mailako akordio batzuk ez bezala, behin parte hartzaileek haien arteko merkataritzarako eta inbertsiorako hesiak ezabatuta, NAFTA -k ez du aurrez ikusten ez integrazio ekonomikorik, ez lankidetzarako azpiegiturarik, ezta finantza edo garapen soziala bezalako arlorik. NAFTA -ren egitura instituzionalak ez du inongo gain-nazio elementurik bereganatzen. Merkataritza Libreko Komisioa da erakunde zentrala, hiru estatuen arteko nazioarteko merkataritzaz arduratzen diren hiru ministroek osatuta.

Muga-zergen gehiengoa hitzarmenaren lehen hamar urteetan zehar ezabatu ziren, produktu berezi batzuen kasuan izan ezik. Produktu hauen muga-zergen ezabapenerako, gehienbat nekazaritzako produktuak, epe zabalak onartu ziren, hamabost urtetara artekoak. Hala ere, Mexikok Estatu Batuetako merkatuari dagokionez duen


mendekotasun sendoak, muga-zergak erabiltzeko bere ahalmena urritzen du merkataritzaren integrazio estrategikoko tresna bezala.

4.1. Mexikoko gaur egungo egoera

NAFTA indarrean sartu zenetik, Mexikoren kasuan bereziki, erregionen arteko merkataritza eta atzerriko inbertsio zuzeneko korranteak nabarmenki handitu dira.

Mexikoren kasuan, Estatu Batuetara zuzendutako esportazioek bere esportazio guztien barruan duen pisua azterturik, benetan handitu direla esan dezakegu. Laurogeigarren hamarkadan % 62 -ko ingurukoa bazen, 1990 - 1995 urte bitartean % 80 -tik hurbil eragotera pasa zen, eta 2001-2006 urte bitartearako % 86 -a islatzen zuen²⁷. Mexiko herrialde berera esportazio kontzentrazio handiena duen garapen-bideko herrialdea bilakatu.

7. Grafikoa: Mexikoko esportazioen garrantzia herrialde hartzaileen arabera (2013)



Iturria: Norberak gauzatutako grafikoa, *United Nations, Commodity Trade Statistics* –eko datuak erabiliz .

Grafiko honetan, benetan, Mexikoko esportazioek AEB –ekin duten menpekotasuna argi adierazten da. Menpekotasun hau, NAFTA –ren ondorio denaren zalantzarik ez dago, eta honen barruan makilak duten garrantziaren ondorio. Hala ere, esportazioen pilaketa hau ezin daiteke inolaz abantaila bat bezala ulertu, arazo ekonomiko larriak sortu baititzake ekonomia baten uzkurdua ematen bada. Esportazioen dibertsifikazioa arazo honen soluzio logikoena izango zen.

Hala ere, laurogeita hamarreko hamarkadatik Mexikok Estatu Batuetako ekonomiarekin izan duen integrazio handiak bi herrien ziklo ekonomikoak bat-egitera eraman du, Mexikok Estatu Batuetako ekonomiaren portaerari dagokionez mendekotasun handiagoa bere gain hartuz.

²⁷ IMF, Direction of Trade Statistics –eko base datutik lortutako informazioa

Finantza publikoko kontuei buruz, zerga-karga baxua izaten jarraitzen du²⁸ osasunean; hezkuntzan; pobreziari aurre egiteko eraman beharreko esku-hartzeetan; enpleguen sorreran; azpiegiturretan; eta abarretan eman behar diren politikak aurrera eramateko.

Gaur egun, Mexikok bere BPG -aren % 0.4 -a besterik ez du inbertitzen zientzia teknologian, Europako eta Asiako herri batzuen % 3 - % 5 bitartearekin alderatuz. Azpiegitura lanetan, makinerian eta ekipamenduan emandako sektore publikoaren inbertsiorako ekarpen txikiagoa, ekoizpenean islatu egiten da, hazkunde txikiagoa eta herriaren garapen ekonomikoaren moteltzea eraginez.

2005. urtean sektore publikoaren sarrerek BPG -aren % 23 -a islatu zuten, hala ere, sarrera horien % 37 -a petrolio-sarreretatik eratorriak izan ziren, finantza publikoen menpekotasuna potentzialki aldakorra den baliabide baten oinarritzen dela agerian utziz.

Bestalde, ekonomiaren hazkundeko eta egitura produktiboaren dinamikak ez du lortu enplegu gabezia gainditzea eta “lan duina” bermatzea. Ezberdintasunari dagokionez, emakumeek lan-merkatuan gero eta gehiago parte hartu arren ez dute gizonen egoera berdinetan egiten. Horrela, adibidez, nekazaritza eta abelazkuntzako lanak ez diren arloetan emakumeen proportzioa % 39 -koa besterik ez da, azken urteetan handitu den zifra izan arren. Emakumeen parte garrantzitsua produktibitate eta kalitate baxuko enpleguetan kokatzen da oraindik, denbora partzialeko eta sarrera baxuko lanak izanik²⁹.

4.1.1. Nekazaritza

Hitzarmena elkarrekikotasun osoan oinarritzen da, hau da, ez ditu kontuan hartzen estatuen arteko asimetria existentzia handiak. Hala ere, Mexikoko produktu berezi batzuen muga-zergen ezabatzea burutzeko trantsizio-epe luzeagoak eman ziren eta sektore estrategiko batzuei dagokionez salbuespenak jarri ziren, energian bezala. Gainera, hasiera batean, muga-zerga mexikarrak NAFTA -ko gainerako herrialdeena baino askoz handiagoak zirenez gero, Mexikok muga-zergen kontzesio handiago bat egin behar izan zuen.

Bestalde, hitzarmenak ez du inongo murrizketarik inposatzen nekazaritzari zuzendutako diru-laguntzako erabilerari dagokionez, oso ohikoak Estatu Batuetan, nekazaritza-ekoizpenaren erabateko balioaren % 37 -a irudikatzen duena. Arau horiek betetzeak eragiten duen kostua honela ulertu daiteke: Mexikok Estatu Batuetako merkatura sarbide preferentziala izanez, nekazaritzara zuzendutako diru-laguntzarik gabe, lor zitezkeen etekinak askoz handiagoak izan zitezkeen.


Nekazaritza sektorean, NAFTA -ren esparruan, merkataritzaren eta zerbitzuen liberalizazioak ondorio negatibo larriak izan ditu. Arto produktoreek, adibidez, Mexikoko laborantza nagusien oinarritzko elikagai bat, oso kaltetuta ikusi dute beraien

²⁸ 2005ean BPGaren %9,7a izan zen soilik

²⁹ UNDP (2006)

produkzioa Estatu Batuetatik datorren inportazioen areagotzeagatik. Izan ere, artoaren prezioa jaitsi egin zen, eta Mexikoko merkatua, eraginkortasun handiagoarekin eta diru-laguntza handiak jasota produzitutako arto merkeagoko inportazioekin aurkitu zen.

8. Grafikoa: Nekazaritzan diharduten langileen kopurua eta ekonomian duen pisua (1988 - 2011)



Iturria: Norberak gauzaturako grafikoa, Munduko Bankuko datuak erabiliz .

Nekazaritzari zuzendutako grafiko honetatik, konklusio itzelak atera daitezke. Ikusi daitekeenez, nekazaritzan diharduten langileen kopurua behera egiten jarraitu du NAFTA indarrean sartu eta gero. Hasiera baten, datu honek garatutako herrietan eman den bezala, beste sektoreek langile hauek xurgatzeko gai izan delako eman dela pentsa genezake. Gainera, nekazaritzak ekonomia mexikarrean duen pisua gero eta txikiagoa izan da, industria eta zerbitzuen pisua areagotuz. Lehen mailako irakurketa batekin ondorio txarrik ez da ikusten. Hala ere, langileen sektore arteko transferentzia ez da modu egoki eta zuzendu baten eman, ez da politika egokirik planteatu eta honek nekazarien bizimoduari gogor eroso die.

Nekazari txikienak eta behartsuenak, lehiatzeko gaitasunik gabekoak, egoera hau gehien pairatu dutenak izan dira. Nekazaritza-produktu batzuen esportazioen handiagotzea, batez ere fruituak eta barazkiak, ez da behar bezain sendoa izan nazioko nekazaritza produktuen ordezpina inportatutako beste batzuegatik konpentsatzeko. Kontuan izan behar da, inportatutako produktu horiek subentzioak jasotzen dituztela, eta bestalde, ez dela ematen kalte hauek ordaintzeko transferentziarik.

4.1.2. Makilak

Makilak, Mexikon aurkitzen diren eta beraien ekoizpena esportaziora zuzentzen duten fabrika mota batzuei erreferentzia egiteko muntaia planta batzuk dira. Fabrika hauek berezitasun batzuk dituzte, hala, inportatzen dituzten input -ak ez dute muga-zergarik ordaintzen, eta produktu bukatuak input -a inportatzen den tokian kontsumitzeko bidaltzen da. Kasu honen adibide garbia Estatu Batuak dira. Bestetik, makiletan ez da teknologia transferentziarik ematen eta herrialde industrializatuentzat oso interesgarriak

gerta daitezke, soldata baxuak ordaintzen dituzte eta. Gainera, gehienetan, lan baldintza kaskarrak ematen dira, fabrika hauetan lan egiten duten emakumeen proportzioa gizonena baino askoz handiagoa izanik. Fabrika hauek ez dute herrialdearen garapenean laguntzen, produkzio forma hauen helburua azpigaratutako herrialdeen egoeraz aprobetxatzean zentratzen baita.

Makila sektorea eskulanean intentsiboak diren muntaketa-jardueretara mugatzen da, herrialdeko balio erantsia oso urria izanik. Laurogeiko hamarkadan makilen esportazioek, esportazio mexikar guztien % 27 -a irudikatzen zuten batez beste, eta gutxi gorabehera manufaktura esportazioen % 48 -a. Hitzarmena indarrean dirauen aldian ehuneko hauek, hurrenez hurren, % 45 -era eta % 52 -ra handitu dira³⁰. Bestalde, 2000. urteko hamarkadan makilen esportazioak, PITEEX³¹ programakoekin batera, batez beste, manufaktura esportazio guztien %90a inguru ordezkatu zuen.

Garapen-bideko herrialdeen artean, Mexiko produktu manufakturatutako esportatzaile nagusietako bat da. Ehungintzan; automobilgintzan; eta produktu elektriko eta elektronikotan, besteak beste, esportazioak oso garrantzitsuak izan dira, bereziki, nazioarteko sare ekoizpena osatzeko.

Makila sektorearen esportazioek, 1994. urtetik aurrera % 12 -ko tasa batean hazi dira. Honek, era nabarmenean lagundu dio herriaren manufaktura esportazioen hazkundeari. Inportazioei dagokionez aldiz, ekonomia mexikarrak duen egiturazko mendekotasuna, nolabait Mexikoko esportazioak dituen inportazioetako eduki garaiaren ondorio da, bereziki makila sektorean. Beraz, oro har, Mexikoko merkataritza-balantza defizitarioa izan da 1994. urtetik aurrera³². NAFTA indarrean daraman urte guztietan zehar ere, Mexikok defizita erregistratu du bere kontu korrontean (ikus 9. grafikoa).


Honek agerian usten du beraz, makilek balio erantsiaren gainean duten eragin ahula. Makiletan lantzeko erabiltzen diren materialak (input-ak) estatu batuetatik inportatzen dira gehienbat, muntaketa fabrika hauetan lan eskuan intentsiboak diren lanak burutzeko eta berriz ere estatu batuetara esportatzeko, bertan kontsumitzeko, merkataritza-balantza kaltetuz, eta Mexikoko herrialdean oparotasun kutsurik laga gabe.

³⁰ UNCTAD, (2007). Informe sobre el comercio y el desarrollo

³¹ Makilen antzeko ezaugarriak dituen muntaketa programa. Hau bere inportazio eduki garaiari dagokionez betetzen da.

³² 1995 eta 1997 urte bitartean izan ezik. Hots, "tekila" krisi finantzarioaren ondoren, eta monetaren devaluazio nabarmeneko eraginaren azpian.

9. Grafikoa: Superabit edo defizit komertziala (1990 - 2000)



Iturria: ¹ Norberak gauzaturako grafikoa, Munduko Bankuko datuak erabiliz .


Argi dago bestetik, laurogeita hamargarren hamarkada hasieratik, Mexikoko merkataritzan izugarrizko handitzea eman dela, hala ere, manufaktura merkataritzaren konposizioa kalifikatutako eskulanaren eta teknologiaren intentsitatearen arabera analizatzea interesgarria gertatzen da.

Esportaziora zuzendutako manufaktura kategoriaz guztiek hazkunde azkarra erregistratu dute 1994tik aurrera. Hala ere, kalifikatutako eskulanaren eta teknologiaren intentsitateari dagokionez aldi horretan bere konposizioa ia ez da aldatu.

Teknologia intentsitate altu eta ertaineko manufaktura bezala, kalifikatutako manufaktura esportazioak, esportazio osoen zati garrantzitsu bat islatzen dute. Bestalde, eskulanean eta baliabideetan intentsiboak eta kalifikatutako eta teknologia baxuko manufaktura intentsiboak direnak, manufaktura esportazio guztien ehuneko txiki bat ordezkatzeko dute soilik.

Hala ere, Mexikoko esportazioen proportzio nabarmena, eskulan eta teknologia intentsitate handiko produktu kalifikatu bezala sailkatuta egon arren, enpresa mexikarrek batez ere artikulua horietako muntaketako faseetan hartzen dute parte, kalifikatutako intentsitate baxuko eskulanetan.

10. Grafikoa: Teknologia maila altuko esportazioak (1989 - 2013)



Iturria: Norberak gauzatutako grafikoa, Munduko Bankuko datuak erabiliz .

Grafiko honetan, teknologia maila altuko esportazioek izan duten eboluzioa adierazten da, eta erraz kontura gaitezke NAFTA hitzarmena sinatu zenetik manufaktura hauen proportzioa maila garrantzitsu baten handitu dela. Hala ere, Mexikoko esportazioek teknologia maila altua izan dezakete, baina honek ez du esan nahi nahitaez herrian sortutako goi-teknologiako ekipamendurik egon denik. Honek, manufaktura-ekoizpenean makilak duten pisu handiarekin erlazio zuzena gordetzen du, nazio jatorria duten ekipamenduen %2 -a gutxi gorabehera erabiltzen baitute, eta ez dute gainerako ekonomiarekiko lotura sendorik.

Beraz, nahiz eta Mexikoko esportazioak laurogeiko hamarkadatik dibertsifikatu diren arren, eta oinarritzko produktuak esportazio guztien proportzioan txikiagotu diren arren, manufakturatutako merkataritzaren espezializazioa batez ere eskulaneko prozesu intentsiboetan zentratzen da. Merkataritzaren liberalizazioak eta NAFTA -k, Mexikoko konparaziozko abantaila egonkorra mantendu du, kostu baxuko eskulana izan ere.

Mexikoko esportazioen hazkundearen jasangarritasunak, merke eta gutxi kalifikatutako eskulaneko eskaintzaren menpe dago. Nahiz eta, orain, Asiako esportatzaile merkeagoko konpetentzia hazkorrari aurre egiteko beharrea aurkitu.

Gainera, aldebiko eta eskualde anitzeko akordioen bitartez, Estatu Batuak beste garapen-bideko herrialde batzuei merkataritzarako kontzesioak egiteko aukera aurkitzen da, egoera horretan, Mexikok, NAFTA -ren parte izateagatik izan ditzakeen merkataritza lehentasunak nabarmen galduko lituzkeelarik.

4.1.3. Zerbitzuak

NAFTA -k merkataritza zerbitzuen gainean mugen arteko antolamendu zabalak ditu, finantza-zerbitzuen eta telekomunikazioen gaineko kapitulu espezifikoekin. Beraz, funtsezko zerbitzu asko, finantzak esaterako, atzerriko interesengandik kontrolatuak egon daitezke, honekin batera, lehentasunen arabera, herriaren garapena ez kudeatzeko

arriskua bereganatuz. Gainera, NAFTA -n inbertsioa bezalako esferetan integratze "sakonagoa" aurrez ikusten da, jabetza intelektual-eskubideetan, sektore publikoaren kontratazioan eta konpetentzia kontuetan.

Neurri horiek Mexikorentzat lagungarri gerta zitezkeen, barneko balio erantsia handiagotzea eragingo lukeelako, eta aldi berean, nazio-sarrera gehigarriak eta enplegua sortuko lukeelako, teknologia-transferentzia bultzatuz. Gainera, NAFTA -n agertzen den inbertsioari buruzko definizio zabalak, ia erabateko askatasuna uzten dio kapitalaren higikortasunari.

NAFTA -ren antolamenduak Mexikorako Estatu Batuetarako baino askoz murriztaileagoak dira: teknologiarako, ezagueretarako eta botiketarako bere sarbidea mugatzen dute eta, beraz, imitazioaren bitartez eman zitezkeen ikasketaren eta aurrerabide teknologikoaren aukerak txikiagotzen dituzte.

Sektore publikoaren kontratazioaren liberalizazioak NAFTA -ren parte diren beste herri batzuetako enpresek nazio-enpresek duten kontratu publikoetarako sarbide bera dutela defendatzen du, nazio-tratuaren eta ez diskriminazioaren printzipio orokorraren arabera. Beraz, jada Gobernu mexikarra ezin da tresna horretaz baliatu nazio-enpresen garapena bultzatzeko. NAFTA -k tarte gutxi uzten dio hortaz Mexikori politika industrial, garapen-tresna bezala erabiltzeko.

Zerbitzuekin jarraituz, Mexikoko finantza-zerbitzuen liberalizazioaren emaitza bezala, banku-sistemaren atzerriko jabetzaren parte-hartzea % 80 -ra handitu zen 2005. urte amaierarako. Unera arte, banku-sistemaren berregituratzeak ez du krediturako sarbidera hobekuntzarik eragin: izan ere, sektore pribatuari emandako maileguak BPG -a proportzio bezala erabiliz, 1994. urteko % 32 batetik, 2006. urteko % 17 batera gutxitu ziren.

Argi geratzen da beraz, zerbitzuen liberalizazioak ez dituela espero ziren emaitza onak ekarri. AIZ -k ekonomiaren zati bati bultzada eman badio ere, garapen osoa lortzeko gai ez da izan, eta finantza-sektorearen liberalizazioa, garapenerako edo hazkuntzarako ezinbesteko elementua zen hori, ez da aurrerapena finantzatzeko giltza izan, enpresa edo proiektu zehatz batzuk finantzatzeko ateetan geratu baita, enpresa txikiei ekoizpenerako finantzaketarako sarbidea galaraziz.

4.2. NAFTA hobetzeko akordioa

Ipar Amerikako Merkataritza Libreko Hitzarmenaren (NAFTA) sinaduratik hogeit hamar urte pasa dira jada, eta ez da aurkitu oraindik akordioaren emaitzen gaineko gobernuko diagnostiko sendorik. Egungo Mexikoko eta Estatu Batuetako egoerak ikusirik, hitzarmenak bere sinaduraren unean bilatzen ziren helburuak, bere kabuz, lortuko ez dituela agerian utzi ditu. Mexikoren, Estatu Batuen eta Kanadaren arteko NAFTA hitzarmena birplanteatu beharrean aurkitzen da. Modelo zaharkitua da, duela bi hamarkada eskualdeen arteko merkataritza irekitzeko bakarrik balio izan zuena. FTA

NAFTA itunaren ondorioak Mexikoko ekonomian

indartzeko erreforma batzuen beharra, nabaria da beraz. Mexikok eta Estatu Batuek hitzartutako lege osagarriek bultzada berria emango liokete beraz, bi herri hauek eta Kanadak sinatutako hitzarmenari.

NAFTA -k ez zituen itxaropen guztiak betetzea lortu, hala, manufacturen kalitatean, enpleguan eta soldatetan ezberdintasunak txikiagotzea. Hitzarmena gain-saldu egin zen. Hitzeman ziren eta Mexikok lortu ez zituen etekin sozialak ugariak dira, gainera Mexikok ez zuen NAFTA -rekin gehiago haztea lortu. Gaur egun ikusten diren emaitzekin alderatuz, esan dezakegu, oso altuak izan zirela NAFTA indarrean sartu baino lehen jarritako itxaropenak. Ekonomia mexikarraren eta estatubatuarraren arteko konbergentziaren inongo ziurtasunik ez da eman eta garapen ekonomikoari buruzko kontuetan aurrerapen adierazgarriak ere ez da ikusi.

Hitzarmena itxarondako emaitza izan dadila gauzatzeko NAFTA -ri beharreko politikak inplementatu behar zaizkio beraz. Merkataritzatik edo inbertsionetik harantz doan etapa berrian aurkitzen gara. Herritarrari gehiago eragiten dioten gaiak aztertzeke nahia ematen ari da. Honek erlazioari dimentsio berria ematen dio. Ongizate hori mexikarren bizi-kalitatean islatuko litzateke beraz, erlazio trilateral merkataritzan eta ekonomian soilik oinarritzen ez delako, teknologiaren, zientziaren eta heziketaren elkar-trukean baizik.

Hala ere ez dirudi NAFTA hitzarmenean aldaketa handirik emango denik. Hitzarmen zaharra hobetzeko herrialdeen konpromisoa, itun berri bat egitean datza. Esan daiteke beraz, Estatu Batuekiko antolatutako bidegabekeriari aurre egiteko, merkataritza-integrazioari, elkarrezko garapenerako proiektu estrategikoei eta migrazioari dagokionez kolaborazioa bultzatzeko, Mexikok, Estatu Batuek eta Kanadak Akordio Transpazifikoa (TPP -a ingelesez) erabiliko dutela orain dela hogeitun urte negoziatzeko falta zena sartzeko.

Merkataritza libreko akordio berri honek, gainerako hiru herri hauek gain beste bederatzi barneratzen ditu: Japonia, Australia, Zeelanda Berria, Malaysia, Brunei, Singapur, Vietnam, Peru eta Txile.

Herrialdeek akordio berriko eraikuntza aprobetxatzea nahiago dutenez gero, birnegoziatzea ez da jada beharrezkoa izango. Beste batzuen artean ondasunen eta pertsonen mugikortasuna hobetzeko moduak bilatzeko konpromisoa hartu zuten, hala era, badakigu arazo handiena iparraldera zuzendutako migrazio ilegaleko fluxua dela, orain atzerriko langileen erregulaziora iristea itxaroten den arren. Mexiko akordio berri honetan gainera, Asiako merkatuaren hazkunde azeleratuarekin lehiatu ahal izatea bilatzen du.

Merkataritza libreko itun berri honek eskaintzen dituen onura guztiak beteko diren jakiteko goiz da oraindik, hala ere, politika berri hauek barneratzea herrialdeen garapenerako aurrera pauso bat dirudi.

5. ONDORIO ETA KONKLUSIOAK

NAFTA -k hazkunderari eta garapenari dagokionez emaitza etsigarriak eman ditu. Ekonomia mexikarra, mundu industrializatutako merkatu handienera eta dinamikoenera duen sarbide pribilegiatua gorabehera, eta AIZ -ren sarrera handiak gorabehera, ez da orain arte gai izan industrializazioko eta egiturazko aldaketako prozesu dinamikoa abian jartzeko.

NAFTA -rekin Mexikoko esperientziak egiaztatzen du, kapital-metaketa indartzeko, produkzio ekoizpena handitzeko asmoz, eta hobekuntza teknologikoa emateko zein manufaktura-sektoreko barneko balio erantsiaren hazkundera handitzeko asmoz, eskualdeko lankidetzaz ezin dela muga-zergen desagerpenean geratu edo inbertsio korrontera mugatu.

Merkataritzaren eta AIZ -ren korronteen handiagotzea ez litzateke helburu bat bezala berez kontuan hartu behar, baizik eta politika egoki batzuekin konbinatzen denean, hazkundera eta garapen azkarragoa lortzeko bitartekari bezala. Hau guztia kapital finkoko eraketa eta hobekuntza teknologikoa garatzen duten politikak aurrera eramanez.

NAFTA -k esportazioen hazkunderi lagundu badio ere, ez da izan, berrikuntza teknologikoaren eta enpleguaren handiagotzearen bitartez, ez da garapen ekonomiko handiagoari bide emateko itzaroten zen motorra izan, alegi. Atzerriko inbertsioko sarrera eta lehen mailako ondoreko (petrolio gehienbat) esportazio egituratik, bitarteko ondasunetara (elektronika eta auto-mozioa) aldaketa ez da berrikuntzekin batera etorri. Horren ondorio izan da, beste batzuekin batera, NAFTA -rekin batera eman beharreko politika publiko paraleloen falta, nazio-azpiegituraren hobekuntzan eta nazio-ekoizpenaren ahalmenean lagun zezaketenak.

Esportazioen hazkundera ez du izan BPG -aren hazkunderaren eta garapenaren gaineko efektu handirik. Hau, lehenik ondare-esportazioen erdia makilen industriarik eratorriak izatearen ondorio da, gainerako aparatu emankorreranzko efektu biderkatzaileak ez sortzeko joera duena, eta bestetik, garapen-politiken absentsiatatik edo hornitzaile lokalak estimulatzeko politiken faltatik.

Hau horrela, eta irekitzearen ondorioz tentsioko egoeretan aurkitu diren sektoreetarako laguntzako politiken absentsiaren aurrean, herriaren manufaktura heterogeneotasuna sakontzeko joera eman da. Enpresa handi batzuek mundu merkatuan sartzea lortu eta irekitzearen eta globalizazioaren abantailak aprobetxatzea lortzen duten bitartean, tamaina txikieneko enpresen kasua ezberdina izan da. Ekoizpenerako finantzaketarako sarbiderik gabe, kalifikazio baxuko eskulanarekin eta esportatzeko beharrezkoa den lehiakortasunik gabe, inportazioen kompetentzia gogorraren aurrean irautea zail egin zaie.

NAFTA itunaren ondorioak Mexikoko ekonomian

Konklusioak ateratzeko orduan batek, gai beraren gaineko jarrera oso ezberdinak aurki ditzake. Alde batetik, lehengo hogeitun urteetan NAFTA -ren gainean eman diren ondorioetatik konklusio positiboak atera dituzten aldeko ebaluazio ugari aurki ditzakegu, NAFTA -k hazkunde gehiago eta enplegu gehiago (hobeto ordainduak) ekarri duela defendatuz. Bestetik, erabateko aurkako ebaluazioak aurki ditzakegu. Hauen ustetan, hitzarmenak enplegu-sorrera eta bizitza-baldintza hobekoak lortu zituelako promesetan porrot egin zuen. Gainera, enpleguetako galera masiboari, sarreren ezberdintasunaren handiagotzeari, nekazaritza-ezegonkortasunari, ingurune erasoei eta migrazio mugimenduei lagundu zien.

Atera ditzakegun konklusioak gure interesentzat apur bat sesgatuta egon daitezkeenez gero, interesgarria gertatzen da NAFTA -k ekonomia mexikarraren gainean izan dituen efektu ezberdinak aztertzerako orduan perspektiba bikoitzetik egitea: Berehalako helburuak aztertuz eta azkeneko helburuak aztertuz. Hala ere, NAFTA -k izan dituen beste ondorio batzuk ere azalduko ditugu, konklusioak azaltzeko garrantzitsuak aurkitzen ditugu eta.

Berehalako helburuen analisi bat egitea, kanpo-merkataritzako (esportazio eta inportazioak) aldagaien eta atzerriko inbertsio zuzenaren bilakaera analizatzea da funtsean. Honen arrazoa da merkataritzako eta inbertsioko akordioa izaterakoan, aldagai hauek benetan eragina ikusi daitekeela hain zuzen.

Aitzitik, bigarren ikuspegiak hitzarmena proposatzera eta azkenik sinatzera eraman zuten azkeneko helburuetan zentratzea proposatzen du. Mexikoren helburuei dagokienez esan dezakegu enplegu-sorreraz, soldata-hobekuntzaz eta emigrazioaren murriztapenaz gain, ekonomia-hazkundera bultzatzea eta Mexikoren eta bere merkataritza-bazkideen arteko garapen ezberdintasunak txikiagotzea, haietako batzuk direla.

Aurreneko ikuspegi batetik analizatuz, NAFTA geroztik, merkataritza fluxuak eta inbertsioa nabarmen areagotu zirela nabaria da. Ikuspegi honek ez digu ezer berririk esaten, izan ere, merkataritzarako eta inbertsiorako oztipoak gutxitzen badira naturala da orduan hauekin erlazionatutako kontzeptuak haztea. Zentzu horretan, merkataritzarako eta inbertsiorako hesiak txikiagotzerakoan hauek handitu zirela ondorioztatzea ez dirudi adierazgarria NAFTA -ren ondorioak ebaluatzen.

Bigarren ikuspegitik, NAFTA -ren helburu garrantzitsuenetako bat ekonomia mexikarraren hazkundera bultzatzea zetzan, baina aurreko kapituluetan ikusi ahal izan dugun bezala hazkunde hori ez da funtsezko eran gertatu.

Mexikoren eta Ipar Amerikako bere bazkideen arteko garapen eta bizi-mailaren arteko ezberdintasuna txikiagotzea NAFTA -ren azkeneko beste helburuetako bat zen eta hemen ez dago inongo zalantzarik: inongo konbergentziarik ez da eman eta, izatekotan, denboran aurrera dibergentzia eman da. Emigrazioa gainera denboraz handitzen joan den beste faktore bat izan da.

Arestian aipatu dugun moduan, Mexikon NAFTA soldata hobeagotan eta mexikarren bizitza baldintzen hobekuntzan bukatuko zuen mekanismo bezala ulertu zen. Honi buruzko ebidentzia enpirikorik ez da ematen. Gainera NAFTA -k Mexikoko iparraldean modu ez-berdintsu baten eragin zuen. Merkatu estatubatuarerako hurbiltasun geografikoa eta atzerriko inbertsio zuzen handienaz gozatzekoez azpiegitura egokiak izateak bultzatua, eskualdeen arteko ezberdintasuna areagotzeari lagundu zion.

Hitzarmenak ez dirudi era adierazgarrian ekonomia-hazkundera handitzera, merkataritza-bazkideekin ezberdintasunak txikiagotzera, migrazioa gutxitzera, soldata-mailak hobetzera edo pobrezia txikiagotzera lagundu duenik, hala ere, emaitza hauek NAFTA -ri soilik esleitzea zail gertatzen da. Herri ezberdinen arteko kohesio politikarik ezak eta Mexikoko lurralde urrienetarantzko transferentzien absentziak ez diote egoera honi lagundu.

Hasieran planteatutako hipotesiari dagokionez, merkataritza libreko akordioa herrialde berdinen artean soilik onuragarria izango dela sostengatzen zuena, Mexiko hitzarmen honetatik ondo atera ez dela esan dezakegu. Iparreko herriak ordea, Mexikok eskaintzen zituen aukerez aprobetxatu dira eta bere ekonomia handitzen ikusi dute.

Dena dela, burutu dugun analisisa ez da nahikoa aipaturiko tesia baieztatu ahal izateko, garapen-bideko herriaren portaera hitzarmen guztietan berdina izan ez dadinaren aukera geratzen da eta.

Bestalde, lan honek hurrengoak baieztatzeko aukera ematen digu: merkataritza libreko akordio batek, batez ere bi herrialde guztiz ezberdinen artean ematen denean, kohesio klausulak barneratzeko erantzukizuna bere gain hartzeko beharra dauka, honek, programa estrategiko egokiekin batera herrialdeen garapenera lagunduko duen neurria delako hain zuzen ere.

BIBLIOGRAFIA

- Acuña, V. eta Alonzo, M. (2000). *La integración desigual de México al TLC*. México: Red Mexicana de Acción frente al Libre Comercio
- Amerikako Estatuak Bilkura (2003ko urria). *Tratado de Libre Comercio entre Centroamérica y los Estados Unidos* (Volumen N°7). Costa Ricako Errepublikak http://www.sice.oas.org/TPD/USA_CAFTA/Studies/PreguntasFCRI.pdf web-gunean eskuragarri (2015eko Martxoaren 21ean ikusia)
- Bacon, D. (2004). *The toxic border*. American Program Policy Brief. Inter hemispheric Resource Center.
- Blank, S. eta Harr, J. (1999). *Making NAFTA work: U.S. Firms and the New North American Business Environment*. University of Miami: North-South Center Press
- Cardero, M., Rueda, I. eta Concheiro, E. (1996). *México: pasado, presente y futuro*. México: Siglo veintiuno editores. Tomo I. Autore ezberdinen bilduma
- Carrillo, A. (2007). *Análisis del conflicto entre México y Estados Unidos de Norteamérica en materia agropecuaria en relación con el azúcar y la fructuosa* (Capítulo 1). México http://catarina.udlap.mx/u_dl_a/tales/documentos/lfis/carrillo_s_am/portada.html web-gunean eskuragarri (2015eko Martxoaren 23an ikusia)
- Ceceña, A. E., Suárez, S. eta Roldán, G. (1996). *México: pasado, presente y futuro*. México: Siglo veintiuno editores. Tomo II. Autore ezberdinen bilduma
- CEPAL (1997). *Integración de América del Norte: implicaciones para la competencia y competitividad internacional de regiones*. http://repositorio.cepal.org/bitstream/handle/11362/7376/S9710831_es.pdf?sequence=1 web-gunean eskuragarri (2015eko Abuztuaren 3an ikusia)
- CEPAL (2001). *Mejores prácticas de transporte intermodal en las Américas: estudio de casos de exportaciones del Mercosur al NAFTA*. Chile: Cepal
- European Commission. (2014). *Inversión para empleo y el crecimiento*. Belgium: Lewis Dijkstra
- Fondo de Cultura Económica y ITESM. (1995). *Entendiendo el TLC*. México: Centro de Estudios Estratégicos.
- Fujii, G. eta Cervantes M. R. (2009). *Liberalización comercial y empleo en México*. REM
- Gambrill, M. (2006). *Diez años del TLCAN*. México: UNAM

- Globerman, S. eta Walker M. (1994). *El TLC, Un enfoque trinacional*. México: Fondo de cultura económica.
- Gudynas, E. (2005). *Dos caminos distintos: tratado de libre comercio y procesos de integración*. Acosta, A. eta Fander, F. (Eds.), TLC: Más que un tratado de libre comercio
- Guémez, Guillermo eta Zabludovsky, Jaime (1995). *Visión general del tratado atalean. Entendiendo el TLC* (Moreira, H.). México: ITESM
- Hogenboom, B. (1998). *Mexico and the NAFTA Environment Debate*. Netherlands: International Books
- Kose, M. A., Meredith G. M. eta Towe, C. M. (2004). *How has NAFTA affected the Mexican Economy? Review and Evidence*. IMF
- Lusting, N. eta Székely, M. (1997). *México: Evolución económica, pobreza y desigualdad*. Washington D.C.
<http://publications.iadb.org/bitstream/handle/11319/5293/M%C3%A9xico%3a%20Evoluci%C3%B3n%20econ%C3%B3mica%2c%20pobreza%20y%20desigualdad%20.pdf?sequence=1> web-gunean eskuragarri (2015eko Apirilaren 21ean ikusia)
- MacArthur, John R., (2000). *The selling of “free trade”: NAFTA, Washington and the subversion of American Democracy*. New York: Hill and Wang
- Martin, P. (1993). *Trade and Migration: NAFTA and Agriculture*. Washington: Institute for International Economics
- Mexikoko gobernu (2013). *Plan Nacional de Desarrollo 2013-2018*. <http://pnd.gob.mx> web-gunean dokumentua deskargatzeko aukera ematen du (2015eko Abuztuaren 3an ikusia)
- Moreira Rodriguez, Hector (1995). *Entendiendo el TLC* (2. edizioa). México: ITESM
- MUNDUKO BANKUA. Datu basea. <http://datos.bancomundial.org> web-gunean eskuragarri (2015eko Ekaina – Iraila bitartean jasotako datuak)
- MUNDUKO BANKUA (2005). *Lessons fom NAFTA for Latin America and the Caribbean*
- MUNDUKO BANKUA (2003). *El TLCAN es positivo para México pero no es suficiente*. Washington.
<http://web.worldbank.org/WBSITE/EXTERNAL/NEWS/0,,contentMDK:20146246~pagePK:64257043~piPK:437376~theSitePK:4607,00.html> web-gunean eskuragarri (2015eko Abuztuaren 10ean ikusia)
- NAFTA, testu juridikoa. (1994)

NAFTA itunaren ondorioak Mexikoko ekonomian

<https://www.nafta-sec-alena.org/Inicio/Textos-juridicos/Tratado-de-Libre-Comercio-de-Am%C3%A9rica-del-Norte> web-gunean eskuragarri (2015eko Maiatzaren 9an eta Abuztuak 15ean ikusia)

Narváez, S. (2001). *El tratado de Libre Comercio de América del Norte y la problemática del sindicalismo tradicional*. Nueva Antropología, XVIII. bilduma, 59. zk.

OECD (2015). Estudios económicos de la OCDE México.

<http://www.oecd.org/economy/surveys/Mexico-Overview-2015%20Spanish.pdf> web-gunean eskuragarri (2015eko Abuztuaren 4ean ikusia)

Rodil Marzábal, O., eta Lopez Arevalo, J. A. (2009). *Efectos del TLCAN sobre el comercio de México: creación de comercio y especialización industrial*. Revista de Economía Mundial 27, 2011, 249-278

Scott, R. (2003). *The High Price of “Free” Trade*. Washington: Economic Policy Institute

Twomey, Michael J. (1996). Las corporaciones multinacionales y el tratado de libre comercio de América del Norte. México: Fondo de Cultura Económica.

UNCTAD (2007). *Informe sobre el comercio y el desarrollo*

UNDP (2006). *Common Country Assessment: Mexico*

UNDP (2007). *Informe sobre el desarrollo humano: México 2004 eta México 2006-2007*

United Nations, Commodity Trade Statistics. <http://comtrade.un.org> web-gunean eskuragarri (2015eko Abuztuaren zehar ikusia)

Urquidí, V. L. (1997). *México en la globalización*. México: Fondo de Cultura Económica

Vega Cánovas, G.; Posadas, A.; R. Winham, G. eta W. Mayer, F. (2003). *México, Estados Unidos y Canadá: resolución de controversias en la era post TLCAN*. México: UNAM

Weintraub, S. (1989). *México frente al acuerdo de libre comercio*. México: Diana

Weintraub, S. (1997). *El TLC cumple tres años*. México: ITAM

Wise, Timothy (2009). *Agricultural Dumping Under NAFTA*. Tufts University

WITS: World Integrated Trade Solution. <http://wits.worldbank.org/Default.aspx> web-gunean eskuragarri (2015eko Abuztuaren zehar ikusia)